



**Mendiko larratze-jarduera desagertzeak «ondorio ugari» eragin ditzakeela ondorioztatu dute ▶22-23**



**Gure Esku Dago dinamikako eskualdeko taldeek batzorde bateratu bat osatu dute aurton ▶9**

# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**48. zenbakia**

2016ko  
otsailaren 11tik  
otsailaren 17ra arte

## «Kirola gozatzeko da; bestela, ez du merezi»

**Garazi Murua Astorkiza**

Athleticeko atzelariak ligako bigarren bueltari ekin dio. Pozik dago egindako lanaz. ▶16-17



HERRIZ HERRI LEIOA

## Ezagutzak kalera ateraz

**Leioako Herrigune ekimenak** herritarren bilgunea sortu gura du Boulevarden, otsailaren 18tik 21era bitartean. ▶6



HERRIZ HERRI SOPELA

## Mihiluzeko irabazleak

Kurtzio kultur etxean jokatu zen pasaden barikuan Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finala; Larrabasterrako Iberre institutuko Nora Franco eta Nardia San Andres izan ziren irabazleak. Ia 60 nerabe uribekostarrek parte hartu dute txapelketan. ▶8

KULTURA ALGORTA

## Abra Saria, otsailaren 12an

**Euskal Herriko bertsolari** gazteen sariketa jokatu dute bariku honetan, Algortako Azebarri kultur gunean. ▶15

**GetxoBizi eta «Aparka» sistemagaz,** Udalak bizikletan ibiltzeko eskaintza handitu eta «gaurkotu» egin du. ▶4

**E-busagaz pozik dira** auzotarrak, Erandioko Udalaren arabera. Auzokoa Herriko Elkarteak hura hobetzea gura du. ▶5

**Hazilan egitasmoaren bitartez,** gazteak laneratzeko aukerak areagotu gura ditu Leioako Behargintzak. ▶6

**Book Trailer Lehiaketa** abiatu du bigarren urtez Kalabazanek; gazteen artean irakurzaletasuna bultzatu gura dute. ▶15



### Torturaren Aurkako Eguna aldarrikatuko dute hilaren 13an

Zapatuan, hilaren 13an, Torturaren Aurkako Eguna aldarrikatuko du Algortatik indar okupatzaileen kontrako Hanka mugimenduak. Arrastiko 17:00etan jarri du lehenengo hitzordua, inauterietako herri-bazkaria aprobe-txatuz, San Nikolas plazan. Ondoren, kalejiran Algortako Guardia Zibilaren koartelera joango dira, 17:30ean «Algortatik joan daitezela» aldarrikatze-ko, «indar armatu horrek askotan torturak eragin dituelako». «Espainiako Poliziak 1981eko otsailaren 13an torturatuta hil zuen Joxe Arregiren hilke-ta erreferentziatza hartuta», Torturaren Aurkako Eguna egiten dute urtero, egun horretan, Euskal Herri osoan. ◀

### Aurreko urtean baino bisitari gehiago hartu ditu Getxok 2015ean

Turismo Bulegoak 51.772 bisitari hartu zituen iaz. Hala, aurreko urtean baino %54 bisitari gehiago etorri ziren 2015ean, Udalak jakinarazi duenez. Ereagako bulegoan 21.810 lagun zantalzei erantzun zieten, bisitari guztien %42 (2014an baino %25 gehiago); Bizkaiko Zubian dagoen bulegoan, berriz, 24.685 laguni, guztien %48 (aurreko urtean baino %67 gehiago); eta bulego mugikorretan gainerakoei, 5.277 bisitari-ri (%10), aurreko urtean baino %198 gehiagori. Datuok ikusita, argi dago turismoa handitu dela azken urtean udalerrian; uda aldean (%53), batez ere. Udalerriko hoteletan batez besteko egonaldia 2,29 egunekoa izan da. ◀

# Mozorroa jantziz gero...

**Aurrera doa Getxoko inauterien jaiak.** Hilaren 12tik 14ra, garai historikoen mozorroek hartuko dituzte Algortako kaleak, jai-giroa bazter guztietara hedatuz.

**I**tzubaltzeta/Romoko inauteriak igaro dira, eta auzo horretako herrikideek animalien mozorroak ar-mairuan gorde dituzte daborduko. Ostera, oraindino badago mozorrotze-ko aukerarik udalerrian. Izan ere, aste-akabu honetan algortarren txanda helduko da, eta garai historiko ezberdinak irudikatuko dituzte kaleetan. Paleolitikoko cro-magnonak, erromatarak, Erdi Aroko zaldunak, piratak, cowboyak zein sufragistak, besteak beste, ikusi ahal izango dira ziurrenik Algortan, hilaren 12tik 14ra bitartean.

Barikuan emango diete jarraipena iragan otsailaren 5ean eskola-inauteriek hasiera emandako ospakizunei. Egun horretan, umeentzako hainbat ekitaldi antolatuko dituzte San Nikolas plazan. Arrastiko 17:00etan, tailerrak egingo dituzte; eta ordu eta erdi beranduago, 18:30ean, txokolatea banatuko dute, ondoren disko-festa eta dantzaldiari aurre egin ahal izateko, 19:00etatik 21:00etara. Hurrengo egunean, zapatuan, egun handia izango da. Egun osoko egitaraua prestatu du Algortako Jai Batzordeak. Hala, eguerdiko 12:00etatik aurrera eta egun osoan, Algortako kuadrillak mozorro onenaren



Jarduera gehienak San Nikolas plazan egingo dituzte.

saria lortzeko norgehiagokan ibiliko dira. Ordu horretan bertan, talde-argazkia egiteko aukera izango dute, San Nikolas plazan. Ostean, 13:00etan, umeen eta gurasoen kalejira egingo dute, fanfarrea batez lagunduta, San Nikolas plazatik abiatuta. Ordu berean, kuadrillek poteo animatua izango dute, 15:00etan bazkariari gogotsu eta pozik aurre egiteko. Bazkarirako txartelak 7 euroan erosi ahal izango dira egunean bertan. Ondoren, bazkaloste animatua izango dute, eta 18:30ean kuadrillek kalejira abiatuko dute San Nikolas plazatik, Algortako kaleak alaitzeko asmoz. Iluntzean, 20:00etan, karaokean egingo dute, eta 22:00etan mozorroen sariak banatuko dituzte; ondoren, DJ Bullek San Nikolas plaza girotuko du.

Barikuan eta zapatuan, txosna ere egongo da San Nikolas plazan, barikuan 17:00etatik 23:00etara; zapatuan, egun osoan, 02:30era arte; eta domekan, 10:30etik 14:00etara.

### Festak, ordu bi gehiago

Aurreko aste-akabuan egin legez, Getxoko ostalaritzako establezimenduen ixteko ordutegia ordu bi luzatuko du Udalak aratuste-egunetan, sektorearen ekonomia-jarduerari laguntzeko asmoz. Hala, hilaren 12an eta 13an udalerriko 1. taldeko lokalek (dastalekuak...) 02:30era arte zabaldu ahal izango dute; 2. taldekoek (kafetegiak, tabernak...), 04:30era arte; 3. taldekoek (pubak, klubak...), 06:00ak arte; eta 4. taldekoek (diskoketak...), 08:00ak arte. ◀



**San Nikolas-Basagoiti Ibilbidea** osatzen duten 27 tabernek 2.500 euroko balioa duen otzara zozkatu zuten iragan eguaztenean; Sherezade Villar Kanek jaso du saria. Halaber, Portu Zaharreko mojen jantoki sozialera bideratu dute zozketagaz batutako dirua: 3.760 euro.

## Utopianek diru-batzea abian ipini du, lokala osatzeko

**U**topian sormen-tailerrak *crowdfunding* talde-finantzaketarako kampaia abiatu du erakustaretoaren ekipamendu tekniko osatu ahal izateko. Ekimen horregaz lortutako diruari esker, honakoak jarri ahal izango dituzte: aire girotua, publikoarentzako harmaila eroangarriak, fokuak eta oihala. Lehenengo fasean, arduradunek 11.076 euro batzea espero dute, aire girotua ezarri ahal izateko. Bigarrean, berriz, 25.000 euro bildu gura dituzte harmailetarako, eta, azkenik, beste 13.000 euro, fokuak eta oihalerako. «Hiru urteko ibilbidearen ondoren, beharrezkoa ikusten dugu gauza horiek guztiak jartzeko», azaldu dute arduradunek. Diru-laguntzak ematen dituzten artean,



halaber, apirilean egingo duten Zabalte Kontzertu baterako gonbidapenak banatu eta guztien izen-abizenak jakinaraziko dituzte. Kamiseta bat eta lokala doan alokatzeko aukera ere eskainiko dute, besteak beste. ◀



Getxo

# «Behartsuenei laguntzeko hainbat ekintza antolatu ditugu»

**Algortako Eskubeltz eskaut-taldeak** 25 urte bete ditu aurten. Mende laurden horretan egindako ibilbidea luzea izan da, eta ez beti erraza; ostera, gaur egun, taldeak garairik «onena» bizi duela aitortzen du Irantzu Sedano Beitia begirale gazteak.



Eskubeltz eskaut-taldeko begiraletako bat da Irantzu Sedano Beitia.

IKER RINCON MORENO ►

**A**lgortako Eskubeltz eskaut-taldeak 25 urte bete ditu aurten, eta zilarrezko ezteiak ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditu urte honetarako, ia guztiak udalerriko behartsuenei laguntzeko asmoz.

## Zer da eskaut izatea?

Balio batzuk izatea, oro har kristauak, baina beti gizartearekin eta naturarekin lotutakoak, munduaren eraldaketari begira. Hortaz, balio batzuk izatea, eta horiek zure herrian eta zure herriko haurrekin islatu nahi izatea.

## Zelakoa izan da 25 urteko ibilaldia?

Gauza asko gertatu dira 25 urte hauetan. Hasiera batean, apur bat ahul hasi zen taldea, hasiera guztien moduan. Garai zailak ere bizi izan ziren, begirale aldetik kopuru nahikoa ez zegoelako hainbeste umeri arreta eskaintzeko. Hala ere, gaur egun esan genezake azken urteotako garairik onena bizi dugula; ume piloak dugu, eta begirale asko ere bai. Guztira, 110 ume ditugu, gutxi gorabehera, 8 eta 18 urte bitartekoak, eta horiekin batera, 15 begirale gara.

## Aisialdia sustatzeaz gain, gizarte «hobeago» baten alde egiten duzue lan...

Bai, eskaut-taldea hiru bloketan dago

banatuta: heziketa, fedea eta gizartea. Gizarteari dagokionez, natura ezagutzea eta herrian eragina izatea bilatzen dugu. Horretarako, etorkinekin, jende behartsuarekin eta udalerriko nagusiekin harreman zuzena izaten saiatzen gara. Horren harira, 25. urteurreneko ekimenak gizarteari lotutakoak izango dira ia denak. Gero, herriko ekimenean parte hartzen saiatzen gara, berbarako, Bizarra Lepoanek Euskararen Egunean egiten dituen ekintzetan.

## Zilarrezko ezteiak ospatzeko, hainbat jarduera antolatu dituzue urte honetarako, zeintzuk?

Gehienak gizarteari lotutakoak izango

dira. Adar txikiak nagusien etxetara joan dira abestiak kantatzera eta alaitasuna zabaltzera. Gero, 13-15 urte artekoek behartsuenezako jakiak bilduko dituzte supermerkatuetan. Nagusiagoak direnak, gainera, mantak batuko dituzte; eta nagusienak Argia fundazioarekin boluntario ibiliko dira, laguntzen eta haiekin egoten. Halaber, talde osoko ekintza bat egitea aurreikusi dugu, naturarekin lotutakoa; oraindik ez dago zehaztuta, baina baliteke Berangora joatea, kiskalitako eremuan zuhaitzak landatzera. Halaber, Villamonteko kultur etxean eta Algortako merkatuan, taldearen argazki-erakusketa ikusi ahal izango da egunotan. Azkenik, martxoan jaialdi bat ere egingo dugu.

## Horiez gainera, zer-zerlako jarduerak antolatu ohi dituzue?

Bi motatakoak: batzuk lokalean, eta beste batzuk kanpoan. Bizikidetzak ere egiten ditugu, talde osokoak zein adarkakoak. Uda aldean, gainera, kanpamentua egiten dugu.

## Zein hizkuntzatan egiten dituzue jarduerak normalean?

Euskara eta gaztelania tartekatzen saiatzen gara. Eskubeltz hasi zenean, ez zen euskaraz egiten, eta orain apurka-apurka euskara erabiltzen hasi gara. Gure helburua da adar txikienek euskaraz egitea, gaztelaniarekin tartekatuta. Adar nagusiei dagokionez, euskararen garrantzia erakusten saiatzen gara, eurek gure hizkuntza erabiltzeko nahia izan dezaten. ◀



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ  
Abeltzaina

## Borrokaz lortu dugu absolutzioa

**G**eure alde egindako borroka eskertu behar Askapenako bostok. Diasporaren sinadurak, beste herrietako alderdi eta pertsonalitateenak, Euskal Herriko 50 udalerrri, Catalunyaeko zenbait parlamentari, Belfast zein Dublineko alkateak, europarlamentariak, Nafar Parlamentuaren adierazpena, Madrileko EHren Lagunak eta 1000 pertsonen manifa... Eta beti ezinbestekoa den herri-ekimena, herrietako Herriak Libre plataformak, estatu espainola epaitzeko hamarna lekutan eginiko herri epaiketak, 5.000 herritar Iruñeko manifa, eta Iñaki, Fakun, Libe, Hugo, Maitane, Peyejo, Baru... bultzaka Askapenaren alde. Askapenerantza! ◀

TABERNA  
*Unai*  
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96  
48991 GETXO (BIZKAIA)  
TELF. 944661661  
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35  
48901 Algorta-Getxo  
Tf. 94 468 26 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

guru izanez gero,  
etsera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34





Ideien soka-dantza

GORKA  
MOSTAJO GALDUROS  
Gizarte Langilea

## Europar Batasunaren batasun eza

Siria fisikoki suntsitzen ari den bitartean, Europak bere printzipioak suntsitzeari ekin dio. Asilo eskatzaileen uholdearen aurrean Batasuneko estatuak bi eratan ari dira jokatzeko: alde batetik, jasotzen dituzten eskariak erarik ezkorrean aztertuz eta, bestetik, neurri juridikoen bitartez, errefuxiatuei herrialdearen irudi zakarrena erakutsiz. Asilo eskaera egitera aldameneko herrialdera errefuxiatu gehien norbidaliko norgehiagokari ekin diote estatu kideek: mugak ixteko mehatxuak, errefuxiatuen 1.350€-tik gorako ondasunak kentzeko Danimarkako legea, errefuxiatuentzako herrixkak sortzeko proposamenak, asilodunek familiak berrelkartzeko epeen luzapenak... Honi guztiari, euren buruak herritarren aurrean zuritzeko asmoz gobernu estataleki errefuxiatuak estigmatizatzen egin dituzten saiakerak gehitu behar zaizkio, Koloniako sexu erasoetan, eta Pariseko atentatuan gertatu bezala.

Nahiz eta estatu kideek errefuxiatuei bizkarra eman, arazoak hor jarraituko du; eta arazoa, Batasun osoarena izango da, linbo juridikoan eta baldintza dohakabearen izango baititu milaka pertsona. Horregatik, errefuxiatu estatusak onartzeko eskumenak Batasunak eduki beharko lituzke, 28 herrialde kideek finantzatutako errefuxiatuentzako politika batzuekin batera. Hori gertatu ezean, gizagabetasunez jokatzeko jarraituko dute estatuak; errefuxiatuei sinatuta dituzten giza eskubideen prismatik so egin beharrean, ekonomiaren prismatik begiratu eta laguntza behar duten pertsona eskubidedunak, zenbaki soil bezala ikusiz. Nik Europan daukat itzaropena, baina ez Europa honetan. Eskerrak gurean behintzat memoria daukagun eta Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernuak errefuxiatuak jasotzeko prest atera ziren! ◀

## Getxo

# Bizikleta-sarea, aurrera

**GetxoBizi eta «Aparka»** sistema berriagaz, Udalak bizikletetarako eskaintza handitu eta «gaurkotu» du; guztira, 25 kilometroko bidegorria dago.

Udalak GetxoBizi bizikletak maileguan hartzeko zerbitzua martxan ipini berri du, modu berrituan eta «Aparka» sistemagaz. Horri guztiari, udalerriko bidegorrien sarea gehituta, Getxo hiri «iraunkor eta atseginagoa» izatea dute helburu. Udal agintariak azaltzen dutenez, bidegorrien sarea hiri barruan mugikortasuna errazteko pentsatuta dago, eta sare hori sortu dute bizikletaren erabilera «iraunkorra, praktikoa eta egunerokoa» izan dadin, hau da, bizikleta «erraz» erabili ahal izateko. «Sare horrek ematen du, hain zuzen, bizikleten maileguaren udal zerbitzua garatzeko aukera», azaldu dute. Horretarako, orain dela urte batzuk Udalak Bidegorrien Plan 2012-2015 garatu zuen; bizikletan ibiltzeko 32 kilometroko bide-sare bat egitea aurreikusitako planak; horietatik 25 kilometro daude erabilgarri. Horrez gainera, planaren barruan «30 guneak» izenekoak ezarri dituzte: Europako hainbat hiritan erabilitako formula bat da ibilgailuen abiadura murgatzeko; horrenbestez, «elkarbizitza» errazteko bien artean, hau da, motor-dun ibilgailuen eta bizikleten artean. ◀



Getxoko bidegorri-sarearen eta GetxoBizi lekuen mapa.



**Getxoko Cortiñe baserria** aurri-egoeran dagoela aitortu eta hura botatzeko erabakia hartu du gobernu-taldeak, eraikina ordezkatzeko xehetasun-azterketa onartu ostean. Oposizioko alderdi guztiek deitoratu dute erabakia, udalerriko Ondarearen «zati bat galduko» delako.

## Dantza eta musika irakasleen lan-poltsa zabaldu dute

Donostiako Udala Musika eta Dantza Eskolak deialdia egin du irakasleen lan-poltsak osatzeko hautagaiak aukeratzeko, eskolako espezialitateetan irakasteko. Hala, interesatuek lan egin ahal izango dute udal erakunde autonomo horretan zein gai horren inguruan elkarlana egiteko lankidetzaren hitzarmena sinatu duten hainbat musika eskolatan; horien artean, Getxoko Andres Isasi Musika Eskola dago. Eskabideak aurkezteko epeak otsailaren 20ra arte iraungo du, eta Andres Isasi Musika Eskolaren Algortako zein Areetako egoitzetan egin daiteke. Aukeratu gura den espezialitate bakoitzeko eskabide orri bat aurkeztu beharra dago, besteak beste. ◀



## Erandoio



Ontzi horietan bost tona plastikoa, lata eta brik batu ziren iaz.

## Zabor-bilketa egonkortu da

**H**iri Hondakin Solidoak selektiboki batzeko 2015ean egindako ahaleginen emaitzak jakinarazi ditu Erandioko Udalak. Denera, erandioztarrek 9.708.348 kilo zabor sortu zituzten iaz, 2014an baino %2,14 gehiago. Kopuru horretatik 8.290 tona sailkatu barik bildu ziren, %85,39; 2014an %85,80 izan zen nahastuta botatzen zen zarama. Kontuak hala, selektiboki batzen den %14,61 kopuruaren gainean berba egin du Udal Gobernuak. Arrizen Monasterio zinegotziaren aburuz, «egin

diren sentsibilizazio-kanpainen emaitza da ingurumenaz hiritarrek duten kontzientziario zabalago hori, baita ikasturtean eskoletan egin diren birziklapenaren gaineko berbaldiena ere; etxeko txikiak senideen artean dibulgazio-lan garrantzitsua egiten dutelako». Datu nabarmena da hiru urtean herriko sendien %11,8k hondakin organikoak biltzeko bosgarren ontziagaz bat egin dutela, ekimen boluntarioa izanda. Hala ere, 1.124 familia horietatik, 63 bakarrik apuntatu ziren pasaden urtean, beheranzko joera, beraz. ◀

## E-busaren gaineko balantzea egin dute Udalak eta Auzokoak

**E**randioko Udal Gobernuaren araberak, «herri barruko autobus-zerbitzuak gero eta arrakasta handiagoa du». Baieztapen hori egiteko aldagai bi baliatu ditu Udalak: alde batetik, erabiltzaile-kopuruak gora egin duela, eta, bestetik, erabiltzaileak «zerbitzuagaz pozik» daudela. Izan ere, azken hori ziurtatzen dute Udalgaz batera zerbitzua ematen duen enpresak aurkeztutako galdeketaren emaitzek. Horren arabera, E-busaz eta zerbitzuaz «iritzi ona» daukate erabiltzaileek: «nota ona eman diete gidariei, eta hori funtsezkoa da eguneroko joan-etorrietarako. Bestalde, pozgarria da autobusak ere erabiltzai-

leen gustukoak izatea», Udal Gobernuak baloratu duenez. Bus-zerbitzuen alde on horiek azpimarratu dituzte erabiltzaileek inkesta horretan: gidarietako harremana, puntualitatea, erosotasuna, irisgarritasuna; hau da, zerbitzu gehiago dituzten auzo nagusietara iristeko erraztasuna, urruneko auzoetan bizi direnentzat; geraleku asko izatea; prezio ona, eta ibilbidea.

Halere, denak ez daude ados. Pasa den udalbatzan, EH Bilduk ahotsa eman zion Erandiogoioko Auzokoa Herriko Elkarteari, eta tarifa bakarra, ibilbide aldaketak eta maiztasun handiagoak eskatu zituen, astegunetan zein aste-akabuetan, besteak beste. ◀

## Indartu programak ez du beharrik ekarri

**Zortzi milioi euro** bideratu ditu Jaurlaritzak lanpostuak sortzeko. Erandiora ez da enpresa bakar bat ere etorri.

**P**asa den irailean abiatu zuen Indartu programa Eusko Jaurlaritzak. Horren bidez, industrian lanpostuak sortzeko inbertsio produktiboak erakarri gura zituen Ekonomiarren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, non eta Europako Batzordeak izendatutako «alde behartsuetan»; horien artean aipatu zuten Erandio. Helburua lortzeko, zortzi milioi euroko laguntza ezarri zuten. Hala, abenduaren 22an, agortu ziren partidaren funtsak, eta orain dela egun batzuk, Arantxa Tapiasailburuak Indartu programaren balantzea egin zuen. Tapiak azaldu

zuenez, Indartuk 89 milioi ekarri ditu inbertsioetan, 10 industria-proiekturen bitartez, eta 426 enplegu berri sortu ditu. Irun, Hernani, Ezkerraldea eta Meatzaldea izan dira, ostera, inbertsio eta lanpostu horiek hartu dituzten udalerritako eskualdeak.

### Lointekentzat, 425.000 euro

Uribe Kostari dagokionez, Urdulizko Lointek enpresak 425.000 euro jaso ditu Lointek Heavy Industries Zierbenako zentrorako, inbertitutakoaren %10; 2015eko maiatzaren 11n aurkeztu zuten planta berria. Zierbenan ekipamenduak ekoizten ditu Lointekek eta inbertsioaren gakoak pabiloi berria Bilboko portutik hurbilago kokatzea izan da, esportazio-ahalmena sendotzeko. Jaurlaritzaren aburuz, 25 lanpostu berri sortu ditu. ◀

## Astrabuduko aparkalekuen egoera salatu du Ganemosek

**G**anemos Erandio udal taldeak eta Erandioko Ahal Dugu alderdiak salatu egin dute Astrabuduak «arazo larria» eta «kronikoa» duela parkingakaz, eta horrek anabasa sortzen duela. Azaldu dutenez, horren adibidea da egunotan Avanzadaranzko irteeran zegoen arauz kanpoko aparkalekua itxi egin dutela, eta autoa uzteko leku asko galdu direla. Alderdi politiko bien arabera, «arazo hori larriagotuko da, berriz, anbulatorioko aparkalekuak ixten direnean». Gogoratu dutenez, leku libreak topatzeko aukokideek eman behar dituzten jira-biretan kutsadura eta zarata handitzen dira, behar barik. Metro-geltokiaren ondoko hala moduzko aparkalekua ere kritikatu dute, «argiztapen zuzena falta zaiolako» eta «lau tanta erortzen direnean, igerileku bihurtzen» delako. Gainera, azpimarratu dutenez, pribatua da, eta gehienez jota, behin-behineko konponbidetzat dela uler dezakete. Aukera bideragarriak eskatu dizkiote Udal Gobernuari. ◀

## Kalezuloren aldeko manifestazioa deitu dute zapaturako

**D**atorren astelehenean, otsailaren 15ean, gazte bi epaituko dituzte, Kalezulo gaztetxearen okupazioa dela-eta. Kalezulok mobilizazioak iragarri ditu zapatu honetarako, «Gaztetxea defenda dezagun!» goiburugaz. Udaletxearen aurreko plazak hainbat tailer hartuko ditu 18:00etatik aurrera. 19:30ean, berriz, *manifestazioa* egingo dute, eta ostean, Itziarren Semeak musika-taldeak joko du. ◀

## Gizarte-laguntzen epea, zabaltzear

**G**izarte-larrialdietarako laguntzen gaurtengo eskaerak astelehenetik aurrera egin ahal izango dira, Astrabuduko eta Altzagako Gizarte Ekintzako udal bulegoetan. Laguntzak oinarrizko premietarako eta etxebizitza-gastuetarako izaten dira: alokairua, kredituen amortizazioak edo zorrak, argia, ura, komunitatea, oinarrizko ekipamendua eta antzeko mantentze-gastuak. ◀

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



txakoli  
**motaTx**  
ganeTx  
txakolina

saiazLibre enpresa 34 (Auzoan Parke) Goheri/Erandoio  
T. 94 467 00 07 www.txakolinagane.com

Leioa

# Ikasitako gazteak laneratzeko ahalegina egingo du Behargintzak

**Hazilan izeneko egitasmoak** hobetu egin gura ditu gazteak laneratzeko dauzkaten aukerak. Halaber, enpresek dituzten beharrei erantzun nahi die ekimenak.



Hazilan 20 eta 35 urte artean dauzkaten gazteei zuzenduta dago. © LEIOAKO UDALA

**L**eioako Behargintza zentroak Hazilan proiektua jarri du martxan. Batetik, 20 eta 35 urte artean dauzkaten gazteei zuzenduta dago egitasmoa; zehatz-mehatz, LHko goizikloko edo unibertsitateko ikasketak amaituta izan arren, langabezia daudenei. Bestetik, proiektu zehatzen bat landu gura duten enpresak hurbilaziti gura ditu Hazilaneak.

Bost urteko iraupena edukiko du egitasmoak; 2016an hasi eta 2020an amaituko da. Udal iturri leioaztarrek azpimarratu dutenez, EAE mailako Garapen elkarteak koordinatuko du Hazilan. Izan ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 20 garapen-agentziak parte hartuko dute, tartean Leioako Behargintzak. Ekimenaren helburua da lan barik dauden neska-mutilei zeharkako kompetentzietan prestakuntza ematea, gazteek goi-mailako ikasketak eduki

arren. Bide batez, proiektu bat bideratu gura duten enpresetan kokatuko dituzte gazte horiek, hainbat eratarik (praktikak, lanpostuan bertan prestakuntza, proiektu berriak, eta abar).

Horregaz, gazteen laneratzeko aukerak hobetzea eta enpresek dituzten beharrei erantzutea lortu gura dute. «Neska-mutilei eta enpresei tutoretza bidezko jarraipen eta laguntza-zerbitzu zehatza eskainiko zaie, proiektua bideratzeko», udal iturri leioaztarrek adierazi dutenez. Izan ere, diotenez, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasketak egin dituzten gazte askok zailtasunak dituzte euren esparruetako ikasketakaz lotutako lanpostuak aurkitzeko.

Gazte kualifikatuek, lehendabizi, «aktibatu» izeneko urratsa egingo dute; zeharkako kompetentziak landuko dituzte, talde autogestionatu eta banakako jarraipenaren bidez. Horregaz batera, prestakuntza jasoko dute (online eta aurrez aurreko jarraipen saioen bitartez). Ondoren, enpresetako proiektuak lantzen hasiko dira. ◀

info+: behargintzaleioa.net

## Mari Pepak eta Arlotek 4.300 euro eskuratu dituzte Caritasentzat

**B**ehargintzak ekimen solidarioa antolatatu zuen Gabonetan, udalerriko familia behartsuei laguntzeko asmoz. Mari Peparen eta Arloteren irudiak zeuzkaten katilu solidarioak erosteko aukera eduki zuten leioaztarrek, eta ongintzazko afari bat ere prestatu zen. Horregaz denagaz, 4.311 euro batzea lortu zuten, eta Caritas elkarteari eman diote dirua. Irabazi asmo bako erakunde horretako kide Jose Manuel Elguezabalek adierazi duenez, zenbaterako horrek hiru hilabeteen 12 familiari oinarritzeko beharrak (elikagaiak, garbiketara, arropa...) asetzen lagunduko die. Hala, emandako laguntza «bihotzez» eskertu die herritarrei. ◀

## Kirol-instalazioetara sartzeko urtean behin ordaindu beharra

**S**akonetak eta Torresoloko kirol-zerbitzuak erabiltzeko, urteko kuota bakarria ezartzea erabaki du Udalak; gura legez ordain daiteke, baina gehienez hamar epetan pagatu ahal izango da diru-kopuru hori. Hala ere, neurri horrek hautsak harrotu du kiroldegietako hainbat erabiltzaileen artean. Adierazi dutenez, kirol-zerbitzuetako tasetan %30eko igoera ekarri duelako neurri horrek; «banakako txartelagatik, 13 euro gehiago ordaindu beharko ditugu; eta familia-txartelagatik, 30 euro gehiago». Hori dela-eta, erabiltzaileetako batzuk sinadurak batzen dabilta astelehen eta eguaztoretan, 19:00etatik 20:00etara. ◀

## Ezagutzak trukatzeko aukera emango du Herrigunek

**O**tsailaren 18tik 21era bitartean, herritarrentzako bilgunea jarriko du Boulevarden Herrigunek ekimenak; hainbat ekintza egingo dute bertan. Besteak beste, Leioaztarren Ezagutzen Sareak batzar bi egingo ditu: bata, eguenean, eta bestea, zapatuan; bertan, euren ezagutzak partekatzeko aukera edukiko dute norbanakoek. Zapatu horretan bertan, Ezagutza Azoka egongo da, 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, hilaren 18ra arte edukiko dute izena emateko aukera, euskararen eta bere erabileraren inguruan ikertzeko eta berba egiteko komunitate-ekintzan parte hartu gura duten guztiek. ◀

### Ekintzetako batzuk

#### Otsailak 18, eguena

18:30-19:30 Leioaztarren Ezagutzen Sarearen biltzarra, Boulevarden.

#### Otsailak 20, zapatua

11:00-18:00 Euskaraz zelan? gune irekia. Ekintzarako gogoeta eta eztabaida, Ondiztorre eraikinean. Izen-ematea, otsailaren 18ra arte.

12:00-13:00 Leioaztarren Ezagutzen Sarearen biltzarra, Boulevarden.

17:00-19:00 Ezagutzen Sarea, Boulevarden.

#### Otsailak 21, domeka

11:00-14:00 Euskaraz zelan? gune irekia. Komunitate-ekintzara bideratutako bilgune irekia, Boulevarden. Izen-ematea, 18ra arte.

info+: herrigune.org

## Bilbaok salatutako torturak berbagai, Kultur Leioan

**M**aiatzaren 17an hasiko da Erika Bilbao Barcena eta beste zortzi euskal herritarren kontrako epaiketa, Madrilen; Ekin erakunde kide izatea egotzita, bederatzireko espetxe-zigorra eskatu dute leioaztarrentzat. Hala, «epaiketa politikoak» salatu zein eskubide zibil eta politikoen alde egiteko, plataforma zabal bat osatu dute; gaur eguena, otsailak 11, Atera gabeko arantzak.

*Garbitu gabeko zauriak* dokumentala aurkeztu eta berbaldia (19:30ean, Kultur Leioan) antolatu du Leioa Libre ekimenak. Gonbidapenak kultur gunean, Udondo tabernan, San Bartolomeko kultur etxeko tabernan, Menoyon, Txopera Berrin, Reinetan, La Kazun, Ganekon eta Kurkudin jaso daitezke. Barikuan, hilak 12, eskualde mailako manifestazioa egingo dute, 20:00etan, Boulevardetik abiatuta. ◀


*Kalitatezko irakaskuntza euskaraz*

**0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.**  
**Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.**  
**Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.**  
**Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.**  
**Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.**

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
 info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net





DISEINUA: Idola Beratarbide



ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA  
 Jose Ramon Aketxe Plaza, 11  
 48940 Leioa (Bizkaia)  
[www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

BONOA: 30 €  
 6 ikuskizun eta  
 Kultur Maratila kit  
 bat opari

Lau egunez  
 euskal  
 sorkuntzaz  
 gozatzeko  
 parada

**Leioa**  
**2016**

**OTSAILAK 25 osteguna**  
 "Zerura eroria"  
 Anodino Teatroa  
 ANTZERKIA (ESTREINALDIA) · 20:30 h / 8 €

**OTSAILAK 26 ostirala**  
 "Malmö"  
 Khea Ziater  
 FILM ESZENIKOA · 20:30 h / 8 €

"Gau beranduan"  
 Harkaitz Cano, Petti,  
 Joxan Goikoetxea  
 MUSIKA-LITERATURA · 22:00 h / 8 €

**OTSAILAK 27 larunbata**  
 "Dantza gurea"  
 Idurre Azkue, Joseba Irazoki  
 DANTZA-MUSIKA · 20:30 h / 6 €

Joseba B. Lenoir Gang  
 MUSIKA · 22:00 h / 8 €

**OTSAILAK 28 igandea**  
 "Heroiak"  
 Txalo  
 ANTZERKIA · 19:00 h / 10 €



## Sopela



**Urbe Kostako Mihiluze** lehiaketaren finala jokatu zuten otsailaren 5ean, barikua, Sopelako Kurtzio kultur etxean; Larrabasterrako Iberre institutuko Nora Franco eta Nadia San Andres izan ziren irabazleak. Denera, ia 60 nerabe uribekostarrek parte hartu dute txapelketan.

## Aurtengo jaiak prestatzen hasteko bilera egingo dute

Jai-batzordeak urteko lehenengo batzarra egingo du otsailaren 17an, eguaztena, Kurtzio kultur etxean; hitzordua 19:00etan ipini dute, Sopelako San Pedro eta Larrabasterrako Karmen festak antolatzen hasteko. Arduradunek gogorarazi dutenez, «edonork parte har dezake batzordean; «izan ere, helburua da denon artean eta denon gustuko jaiak antolatzea». Ez da izenik eman behar, beste barik bilerara agertu eta kito. Sopelako Jai Batzordeak 2011n eman zituen lehenengo pausoak. Herriko kuadrillek, eragileek, taldeek zein norbanakoek lekukoa hartu zuten festen antolaketan; orduetik, Udalagaz elkarlanean dabilta jaiak erakargarriak, dibertigarriak, parte-hartzaileak eta koloretsuak izan daitezten denontzat. Horrez gainera, giro euskaldun eta herrikoa bultzatu ohi dute. ◀

info +: [sopelakojaiak.blogspot.com](http://sopelakojaiak.blogspot.com)

## Euskarazko Irakurle Klubak saio berria egingo du hilaren 18an

Euskarazko Irakurle Klubaren hurrengo saioa otsailaren 18an, hurrengo eguna, izango da. 19:00etatik 20:30era elkartuko dira, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Oraingo honetan, Mari Jose Kerejeta Sarriegi itzultzaileak euskaratu zuen Wladimir Kaminer (Mosku, 1967) idazlearen *Errusiar diskoteka* liburuaren gainean berba egingo dute.

Kaminer Errusiako familia judu batean jaioa zen; 23 urte zituela, Berlinera emigratu zuen, han alemana ikasi zuen, eta idazle arrakastatsu bihurtu zen. *Errusiar diskoteka* lanari dagokionez, Berlin ekialdean juduak hartzen dituztela jakinda, Errusiatik hara doan mutil gazte baten testigantza zintzoak betetzen ditu liburuko 207 orrialdeak, 90eko hamarkada osoa hartuta. Lana 50 narrazio labur inguruk osatzen dute; horietako gehienek hiru orrialde baino ez daukate. ◀

## Barrika

## Umeentzako ekitaldiak eta tostada-lehiaketa, egunotan

Barrikoztarrek zertan gozatu izango dute egunotan, batez ere neska-mutilek. Eguen honetan, hilak 11, txikienek euren gogo gastronomikoak bete ahal izango dituzte liburutegian, Txiki Chef egitasmoagaz. Hitzordua 17:30etik 19:00etara bitartean ipini du Udal Kultur Guneak; aurretik, baina, umeek izena eman beharko dute.

Hurrengo egunean, barikuan, ludotekan jolasteko aukera izango dute 3 eta 12 urte bitarteko ume eta gazte txoek, leku eta ordutegi berean.

Azkenik, astelehenean, otsailak 15, tostada-txapelketaren 8. edizioa izango da udaletxeko beheko solairuan.

Bertan parte hartzeko, izena eman beharra dago; zapatuan, 14:00etan, izango da horretarako epemuga. Lehiakide bakoitzak dozena bat ogitostada aurkeztu beharko du astelehenean, 18:00etan. Handik ordu erdira, epaimahaikideak tostadak probatzen hasiko dira. Hala, lehenengo hiru tostadarik onenen egileek saria izango dute, bi pertsonentzako afari bana, alegia; irabazleak Itxasgane jatetxean gozatuko du; bigarrenak, Iparralden, eta hirugarrenak, Cantabricon.

Lehiaketaren sariak banatu ostean, hurreratutako jendearen artean tostada-dastaketa egingo dute. ◀

## Gorliz

## Izen-emateak: Oporretan Txangora, zinema eta azokan

Astelehenean, hiru ekimenen izen-ematea zabalduko da Gorlizen. Batetik, Gurasoek barikura arte izango dute seme-alabak Oporretan Txangora jardueran inskribatzeko. Neska-mutilek martxoaren 30etik apirilaren 1era goiz eta arrastiko hiru txango egiteko aukera izango dute. Horretarako, gurasoek Urbe Kostako Mankomunitateagaz harremanetan ipini beharko dute. Bestetik, «Zinema genero ikuspegiarekin» saioetarako izen-ematea egin gura dutenek, berriz, astelehenean eta martitzenean izango dute aukera, Sertutxenean eta kultur etxean. Zikloa martxoan eta apirilaren hasieran egingo dute. Az-



lazko azoka. © GORLIZKO TURISMO BULEGOA

kenik, apirilaren 3ko Lore eta Landare Azokan saltokia ipintzeko eskaera-pea ere astelehenean hasiko da. ◀

Oporretan Txangora: 946 762 872

**DIDAK**  
**hAMILTON**  
**IDIOMAS**  
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA  
TF: 94 676 30 12  
[info@didakhilton.com](mailto:info@didakhilton.com)

Jarrai gaitzazu:

[f](https://www.facebook.com/hirukaEus) [t](https://twitter.com/hirukaEus)

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

**Haur Hezkuntzatik Batxilergora**

Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28  
[info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)  
[www.anderdeunaikastola.eus](http://www.anderdeunaikastola.eus)

**ander deuna**  
I K A S T O L A



## Uribe Kosta

# «Herri-galdeketak 2017an egitea aurreikusten dugu eskualdean»



Eskualde-mailako batzordea osatu dute Uribe Kostako GED dinamikako taldeek.

**GED dinamikako taldeek** batzorde bateratua eratu dute eskualdean. Bazkidetza-kanpaina murgilduta daude, baina hainbat ekimen aurreikusi dituzte urte honetarako.

IKER RINCON MORENO ▶

**G**ure Esku Dago dinamikako Uribe Kostako taldeek batzorde bateratu bat osatu dute aurten, elkarrizlagu eta bultzatzeaz gainera, ekimen bateratuak egiteko asmoz. Era berean, dinamikari sostengua emateko bazkide-kanpaina martxan ipini dute.

**Zein da Gure Esku Dago dinamikaren egoera Uribe Kostako eskualdean? Zenbat talde daude gaur egun?**

Getxon, bi talde ari dira lanean, Algotan eta Itzubaltzeta/Romon; Erandion, berriz, erabakitze-eskubidearen aldeko dinamika eraginkor bat bultzatuko duen talde anitz eta konprometitu bat sortzeko ahaleginetan ari dira; Lemoi-zen, 9 lagunez osatutako taldea dago;

Urdulizen ere talde txiki bat dago, hilean behin biltzen dena; Gorliz eta Plentzia batera daude, talde bakarrean; eta Sopelan, taldeak dinamika iraunkorra du, astero biltzen dira 6-7 pertsona.

**Herritarrek zer zelako harrera egin die taldeei?**

Harrera, oro har, ona da, gero eta hobe. Jendeak gero eta gehiago ezagutzen eta identifikatzen gaitu, baina herri batzuetan, «harresiak» oso handiak dira. Halere, ekimenetan parte hartze-ko prest egoten da jendea, baina antolaketa, oso gutxi izaten gara.

**Eskualdeko jendeak zer dio erabakitze-eskubidearen inguruan? Zer-zelako harremana du ideia horregaz?**

Gainerako eskualdeetan bezala, aldeko eta aurkako iritzia daude. Ezin ukatuzkoa da, hala ere, gehiengo sozialak, azken udal hauteskundearen emaitzei erreparatuta, aldeko jarrera duela, nor bere ñabardurekin.

**Bazkide-kanpaina abiatu duzue; zein helburugaz? Zelan hartu dute?**

Astiro, baina badoa. Ez da erraza ulertaraztea herritarren dinamikek herritarren sostengua behar dutela, eta sostengu horrek bi alderdi izan behar dituela: ekintzetan parte-hartzea, eta sostengu ekonomikoa bermatzea. Kontaktuan jarri gara jendearekin, eta kan-

paina martxan dago, sendotu egingo dugu kanpaina, eta jarraipena emango diogu finkatutako helburuari; halere, ezinezkoa da jakitea zenbat bazkide lortu ditugun.

**Aurten, autodeterminazioaren inguruko 22 galdeketa egingo dira Euskal Herrian. Uribe Kostan halakorik egitea aurreikusten da etorkizunean?**

Etorkizunean bai, baina oraindik asko landu behar da; alegia, zorua prestatu behar da, urrats hori eman baino lehen. Aurten, pauso hori emango duten herrien ekimenaren bultzada lagungarria izango da guretzat, baina gure data 2017a izango da, urte horretan egitea aurreikusten dugu-eta. 2016an herritarrekin zein herriko giza eragileekin kontaktu estua izango dugu erabakitze-eskubidearen aldeko adierazpena eta ituna eratzeko, besteak beste.

**Zeintzuk jarduera antolatuko dituzte urte honetarako?**

Herriz herri erabakitze eskubidearen aldeko adierazpeni forma emateko dinamika egingo dira. Horrez gainera, eskualde-mailako batzordea eratu dugu aurten, eta bi ekintza proposatu ditugu ekainera bitartean egiteko: mendi-martxa bat, eta Berangon erre-tako basoan bertoko zuhaitzak landatzea. Horrez gainera, herrietan bestelako ekimenak ere egingo dira aurten. ◀

## Berango

## Eskiatzera joateko txangoa egingo dute martxoaren 19an

**A**zkenean ere! Ematen du negua heldu dela Euskal Herrira. Hori dela eta, urtebete elurra noiz bueltatuko zen itxoiten egon ostean, neguan ohikoa den txangoa prestatu du Berangoko Udalak: eskiatzera joatekoa, hain zuzen ere. Hala, familia berangoztarrak Alto Campoora (Kantabria) joan ahal izango dira, martxoaren 19an, zapatuagaz. Interesa dutenek, aldeztu aurretik izena eman beharko dute, otsailaren 15etik 19ra bitartean (biak barne), Berangoko kultur etxeetan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, autobuseko lekuak inskripzio-hurrenkeraren arabera gordeko dira, eta

Berangon erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Txangoaren prezioari dagokionez, helduek zein umeei 5 euro ordaindu beharko dituzte; erroldatuta ez daudenek, berriz, prezioa galdetu beharko dute izena ematerako orduan. Azaldu dutenez, eski-estazioaren kafetegian ogitartekoak eta plater konbinatuak daude; hala ere, gura duenak etxetik bazkaria eroan ahal izango du. Irteera martxoaren 19an, zapatuan, izango da, Moreagatik, 08:30ean; itzulera, 19:00ak aldera, Moreagara ere bai. Ohartarazi dutenez, neska-mutilek gutxienez 12 urte izan beharko dituzte. ◀

## Filmen aste-akabu kulturala izango du Berango Antzokiak

**A**ratusteen ostean, mozorroak esna egiteko eta hurrengo urterako gorde ondoren, Berango Antzokiak hainbat ekitaldi hartuko ditu. Bate-tik, hilaren 13an, zapatuan, *Relatos salvajes* film argentinarra proiektatuko dute; sarrera, doan. Hitzordua 19:00etan ipini dute. Umore garratzez zipriztindutako lana da, eta modu basati eta sarkastikoa darabil. Bestetik, hurrengo egunean, domekan, umeei begirako animazio-filma proiektatuko dute, arrastiko 18:00etatik aurrera. *Magiaren Etxea* euskarazko pelikulan, neska-mutilek katakume baten abenturakaz gozatu ahaliko dute; doan. ◀

## Urduliz

## Posta-bulegoak ordutegia zabaldu du, zapatuetan ere bai

**U**rdulizko Aita Gotzon kaleko 6. Uzenbakian dagoen posta-bulegoak ordutegia zabaldu du. Hala, ordutegi berria ondoko hau izango da: 11:00etatik 14:00etara, astelehene-tik barikura; zapatuetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara. Era berean, herrietako bulegoek eskaintzen dituzten zerbitzu berberak eskainiko ditu aurrerantzean. Hori horrela, Urdulizko bulegoak berehalako igorpenak eta nazioarteko transferentziak egiteko, eta burofaxak bidaltzeko eta hartze-ko aukera emango du. Horrez gainera, posta-bulegoak paketeria-aukera den-denak eskainiko ditu. ◀



Albuma



# Kantuan eta oleska







**Lurra lozorrotik iratzarri** guran, martiriari gorazarrez, oleska, bakoitza berarentzat eskean... Makila-kolpeen erritmorra, koplak hedatuz, ahots gozoz ala zakarrez... Ume, gazte zein heldu elkarren albora batuta kantuan ibili ziren Uribe Kostako herri denetan, batzuk Agate Deuna Egunaren bezperan, beste batzuk egun batzuk geroago. Une horietako batzuk ekarri ditu irudiotara Hodei Torres argazkilariak.





# hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko otsailaren 11tik otsailaren 17ra arte



hiruka.eus

Kalean erakutsi ostean, *Irrintzi* ikuskizunaren areto barruko saioa prestatu du Getxoko dantza-taldeak. © ORGANIK



SOPELA

## Irrintzi dantza-ikuskizuna

### Onganik taldeagaz

Organik dantza-talde getxoztarrek Irrintzi izeneko bere azken lanaren aretoko bertsoa estreinatuko du barerik honetan, otsailak 12, Kurtzio kultur etxean; orain arte, kalean baino ez dute erakutsi. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrerak 5 euroan daude salgai, ohiko lekuetan. Kurtzioko arduradunek adierazi dutenez, Organik taldea abendutik dabil ikuskizuna-

ren bertso berria prestatzen kultur etxe sopoloztarrean.

Euskal tradiziozko irrintzia abiapunitutzat hartuta, dantza-garaikideko ikuskizuna sortu du Natalia Monje zuzendari daukan taldeak. Adinaren ondorioz, mugitzeko zailtasunak dauzkaten andre zahar bi dira protagonistak; oraindik ere ospakizunetan euren lekua badaukatela-eta, irrin-

tzia entzun bezain laster erabat gaztetuta agertuko dira adineko andre horiek, denboran atzera eginez.

Organikek mugimendua erabiltzen du komunikatzeko, interesatzen zaion hartaz berba egiteko. Proiektu bakoitzerako jatorrizko musika erabiltzen du. Bere oinarria mugimenduko fisioa da, kementsua, asmoz eta emozioz betea. ▶

### ARATUSTEAK



#### Getxo

Algortako Jai Batzordeak antolatuta:

##### 2016/02/12

17:00 Umeentzako tailerrak, Algortako San Nikolas plazan.

18:30 Umeentzako txokolatada, San Nikolasen.

19:00-21:00 Umeentzako disko-festa eta dantzaldia, San Nikolas plazan.

##### 2016/02/13

12:00 Talde-argazkiak, San Nikolas plazan.

13:00 Umeen eta gurasoen kalejira fanfarreagaz, San Nikolas plazatik abiatuta.

13:00 Kuadrillen poteo animatua, Algortako kaleetan.

15:00 Kuadrillen mozzorro-bazkaria, San Nikolas plazan.

16:30 Bazkaloste animatua.

18:30 Kuadrillen kalejira, San Nikolas plazatik abiatuta, hainbat kaletan.

20:00 Karaokea, San Nikolas plazan.

22:00 Mozorroen sari-banaketa, eta ostean, Dj Bull, San Nikolas plazan.

2016/02/14

11:30 Puzgarriak, San Nikolas plazan.

13:00 Txistor-jana, San Nikolas plazan.

14:00 Kuadrillen txapelketako bideo-muntaiak.

#### Leioa

##### 2016/02/13

18:30 Disko-festa, Txorierrri auzoan. Ondoren, txokolatada egongo da.

#### Erandio

##### 2016/02/13

18:00 Euskal Herriko Inauteriak, Astrabuduko Jose Andres Mendiguren plazan. Ondoren, erromeria eta pintxo-potooa egongo dira.

Antolatzailea: Trabudu Dantzari Taldea.

#### Berango

##### 2016/02/13

21:00-24:00 Aratusteetako jaiak, 1999 eta 2001 urteen artean jaiotakoentzat, Berango-Meriana ikastetxeke gimnasioan. Besteak beste, musika, talde-argazkiak, luntxa, zezen mekanikoa eta surf-simulagailua egongo dira.

##### 2016/02/14

11:00 Zuberorako maskarada eta zantantzarrak auzoz auzoz, Otxandategi taldeak antolatuta.

13:00 Inauterien antzezpene egingo dute, Sabino Arana kalean.

#### Plentzia

##### 2016/02/13

18:00 Txokolatada, Jai Alai pilotalekuan.

18:30 Magia-emanaldia, Jai Alai pilotalekuan.

19:30 Disko-festa, Jai Alai pilotalekuan.

#### Urduliz

##### 2016/02/13

22:00 Mozorro-lehiaketa, Basartena tabernan.

#### Barrika

##### 2016/02/13

17:00-20:00 Makillaje-tailerra eta Alex disko-jartzailea, Elexalde frontoian.

18:00 Mozorro-txapelketa, Elexalde frontoian.

19:30 Txokolatada, Elexalde frontoian.

##### 2016/02/15

18:00 Tostada-lehiaketa, udal-etxeke beheko solairuan. Otsailaren 13ra arte (14:00etan) dago izena emateko aukera, kultur etxean.

#### Lemoiz

##### 2016/02/13

19:00-21:00 Disko-festa, Armintzako frontoian.

Mozorro-lehiaketari dagokionez, taberna denetarik pasatu beharra dago.

2016/02/11 - 17:00-19:00

Birziklapen-tailerra

Kultur etxean (Gelis)

2016/02/13 - 17:00

Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa



URDULIZ

## Loreak pelikula ikusgai, barikuan

Inola emakumeen elkarteak abian daukan Generoaren Ikuspegiko Zinemaldiaren barruan, bariku honetan, otsailak 12, *Loreak* filma ikusgai egongo da. Hitzordua 19:00etan ipini dute, kultur etxean; sarrera, doan. ◀

ERANDIO

## Ipuinakaz jolastuko dira Astrabuduan

Otsailaren 18an, eguena, *Ipuinekin jolasean* izenburuko saioa eskainiko du Lur Kortak. Urtebete eta hiru urte bitarteko umeentzako emanaldia 18:00etan hasiko da, Astrabuduko Josu Murueta udal liburutegian; sarrera, doan. ◀

GETXO

## Beldurrezko ipuinak Gobelako bibliotekan

Maidet Galarza ipuin-kontalariak beldurrezko hainbat istorio eskainiko ditu euskaraz, otsailaren 18an, eguena. 5 eta 10 urte arteko neska-mutrientzako saioa 18:00etan izango da, Gobelako haur-liburutegian; sarrera, doan. ◀

Kultur etxea | Gortuz

5 eta 12 urte arteko neska-mutientzat. Doan.

2016/02/11 - 18:00
**Big eyes filma**
**Kurtzio kultur etxea | Sopela**

Genero Ikuspegiko Zinema zikloaren barruan. Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/02/11 - 19:30

### Atera gabeko arantzak. Garbitu gabeko zauriak dokumentala

**Kultur Leioako entzungela | Leioa**
Leioa Libre ekimenak antolatuta. Dokumentala aurkeztuko dute; ostean, torturak salatu dituen Erika Bilbaok eta Olatz Barrenetxea psikologoak berba egingo dute. Gonbidapenak: Kultur Leioan, Udondo tabernan, San Bartolome auzoko kultur etxeko tabernan, Menoyon, Txopera Berrin, Reinetan, La Kazun, Ganekon eta Kurkudin.

2016/02/12 - 19:00

### Plentziako Kantagunea Baseliza | Plentzia

Entsegua egin ostean, kantu-jirra egingo dute Aida Zaharretik, 20:30etik aurrera. Parte-hartzea, libre.

2016/02/12 - 20:00

### Torturaren kontrako eskualde mailako manifestazioa

**Boulevard | Leioa**
Leioa Libre ekimenak deituta. *Torturarik ez, Erika libre!*: izango da mobilizazioaren goiburua.

2016/02/12 - 20:30

### Perplejo antzezlana

**Kultur Leioako entzungela | Leioa**
Galiziako ilMaquimario Teatro taldeagaz. Estreinaldia EAEn. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

2016/02/13 - 09:00

### Bizikleta-irteera Itsaslurreko bide berdera

**Fadurako parkinga (Algorta) | Getxo**

Egizu elkarteko berbalagunen bizikleta-taldeak antolatuta. Algortatik Areetara, Portugaletera pasa eta Muskizera bidegorritik joango dira. Harremanetarako: 652 73 54 45 / 685 732 963

2016/02/13 - 11:30

### Eskulturen ibilbidea

**Metro-geitoki aurreko parkinga | Leioa**
Berbaldun egitasmoak antolatuta; Euskaraz egin dezagun egitasmoaren barruan. Jesus Melendez EHUko Irakasleak emango ditu azalpenak. Parte-hartzea, libre.

**Sukaitia Txapelekea**

Gizeozkoak lehiatuko dira bakarrik, 560 kiloko kategorian. Denera, hamar zortzikote: Abadiño, Sokarri eta Murueta (Bizkaia); Napurrak A eta B, eta Baiona (Lapurdi); Berriozar eta Beti gazte (Nafarroa Garaia); Ibarra (Gipuzkoa); eta 6 Conceyos (Asturias).

2016/02/13 - 18:00

### Coco, el pequeño dragón filma Kultur etxea | Urduliz

Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/02/13 - 19:30

### Kalezuloko auziperatuakaz elkartasun-manifestazioa irailaren 23a plaza (Aitzaga) | Erandio

Aurretik tailerrak egongo dira. Manifestazioaren ostean, berriz, Itziarren Semeak taldeak joko du.

2016/02/13 - 20:00

### Hoy, ultima funcion antzezlana

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**
Ramon Barea eta Itziar Lazkano aktoreakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 8 euro.

2016/02/14 - 09:30-14:00

### Ibilaldia motorrez

**Karl Marx, 17 (Astrabudua) | Erandio**
Astrabuduko Motor Klubak antolatuta. Kantabriako Nofuentes herriko La Ventillara joango dira. Doan.

2016/02/14 - 18:00

### Magiaren etxea umeentzako animazio-filma

**Berango Antzokia | Berango**
Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/02/14 - 19:00

### Sin pena ni gloria antzezlana

**Areetako musika-eskola | Getxo**
Emakumeak Eszenan zirkuituaren barruan. Aztiak taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/02/17 - 19:00

### Jai-batzordearen urteko lehenengo batzarra

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**
San Pedro (Sopela) eta Karmen (Larrabasterra) jaiak prestatzen hasiko dira. Edonork parte har dezake; ez dago izena eman beharrik.

2016/02/18 - 20:00

### Rufus pop taldea

**Silver's Tavern (Algorta) | Getxo**
Getxon Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

**Astegunetan**  
11:00-13:00  
eta 16:30-20:00

**Otsailaren 14ra arte**  
Goñi Portalen

**egizuz!**

**hiruka**



Umorea eta poesia nahasten ditu Letter ikuskizunak. © MALAS COMPANIAS

# Antzerkia eta zirkua batera, Leioan

Gure abotik irten ezin diren berbak esateko balio dute gutunek, Malas Compañias taldearen ustez. Eskutitzek egiten duten bidaian, kontu asko gerta daitezke; sarritan horrek hartzen du benetako garrantzia. Horixe bera erakutsi gura du testu bako *Letter*. *Eskutitz baten bidaia* ikuskizunak. ◀

**Noiz:** Otsailak 14, domeka.

**Ordua:** 18:00

**Non:** Kultur Leioako entzungela.

**Sarrera:** 5 euro .

Denentzako ikuskizuna.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN  
**ERAKUSKETA**

**argihizkiak** argihizkiak.com

# Plentzian





Martxoaren 13an, Hamaika taldearen *Me apunto y punto* antzezlanaren egongo da ikusgai Areetako Andres Isasi musika-eskolan, eta azaroaren 6an, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. © BESARKADA

## Uribe Kostan

### Getxo

**Otsailak 14, domeka**  
Aziak taldearen *Sin pena ni gloria* antzezlanaren.

**Martxoak 13, domeka**  
Hamaika taldearen *Me apunto y punto* obra.

**Apirilak 10, domeka**  
Luna Llena taldearen *Confesiones* antzezlanaren.

**Urriak 23, domeka**  
Burbujas taldearen *De bedets* antzezlanaren.

**Abenduak 11, domeka**  
Totum taldearen *Hola, mon cheri* antzezlanaren.

### Erandio

**Martxoak 13, domeka**  
Aziak taldearen *Sin pena ni gloria* antzezlanaren.

**Apirilak 17, domeka**  
Luna Llena taldearen *Confesiones* antzezlanaren.

**Maiatzak 15, domeka**  
Xancore taldearen *Un sorbito de amistad* obra.

**Maiatzak 29, domeka**  
Totum taldearen *Hola, mon cheri* antzezlanaren.

**Urriak 9, domeka**  
Burbujas taldearen *De bedets* antzezlanaren.

**Azaroak 6, domeka**  
Hamaika taldearen *Me apunto y punto* obra.

# Emakumeak, eszenara!

**Besarkada federazioak antolatuta**, antzerkigintza amateurrean dabilzan emakumeen lanak oholtzaratuko dituzte urteko hainbat domekatan Getxon eta Erandion.

**U**rtarrilaren 31n abiatu zen Bilboko Campos antzokian *Emakumeak eszenan* zikloaren hamargarren edizioa; Aristofanes greziararen idazkietan oinarritutako *Las Lysistratas* obra ikusteko aukera egon zen bertan. Besarkada federazioak antolatuta, antzerkigintza amateurrean dabilzan emakumeen lana ezagutzera ematea

da ekimenaren helburua; aurtengo edizioan Aziak (Usansolo), Burbujas (Bilbo), Hamaika (Arrigorriaga), Luna Llena (Bilbo), Totum (Bilbo) eta Xangore (Gernika) konpainiek parte hartuko dute, urte amaierara bitartean martxan egongo den egitarauari esker.

Bilbon ez ezik, Getxon, Erandion, Arrigorriagan eta Sestaon ere egongo dira emanaldiak. Getxoko saio denak

Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango dira, 19:00etan; sarrera 3 euroan egongo da. Domekan, otsailak 14, *Sin pena ni gloria* antzezlanaren eskainiko du Aziak konpainiak. Erandion ere egongo dira usansolotarrak, martxoaren 13an. Bertoko emanaldi denak Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean izango dira, 20:00etan; eta sarrera 2 euroan egongo da.

### Aziak, lehenengo

*Sin pena ni gloria* antzezlanaren, Don Mariano izeneko pertsonaiaren heriotza susmagarriagaz abiatzen da is-

torioa; modu tragiko batean hil da gizona. Gertaeragaz zerikusia daukaten lau emakumeak elkarrizketatzea erabakitzen du Angela bere jagoleak. Andre horiek, baina, ez dute inolako atsekaberik agertzen, ezta damurik adierazten ere, Don Marianoren heriotzagatik. Aspaldi hartu zuten erabakia... bai hemen, bai han, ondorioak edukiko dituen... Felipe Cuetararen zuzendaritzapean, Maribel Zapata, Nardi Quintana, Merche Fernandez, Altami Torres, Begoña Ibañez eta Virtudes Nogales aktore amateurrek igoko dira antzezlekura. ◀

## Oporretan, txangora joango dira ikasleak

**A**urten ere, Oporretan Txangora egitasmoa prestatu du Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta. Aisialdian, gure hizkuntzan disfrutatzea da ekimenaren helburua. Hala, hiru txango egingo dituzte martxoaren 30etik apirilaren 1era bitartean. Lehenengo egunean, Etxebarriko Sustriak Natura eta abentura-ekintzen parkera joango dira. Bigarren, Añanako gatz-harana bisitatuko dute. Eta hirugarrenean, Mirandaolako burdin parkea eta Erreizabal baserria ezagutuko dituzte, Legazpin. Oporretan Txangora egitasmoan izena emateko epea otsailaren

15etik 19ra bitartean egongo da zabalik. Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela edo Urdulizen erroldatutako 6 eta 12 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute.

Izena emateko Mankomunitateko bulegora (Gatzarriñe, 4. Sopela) jo beharko dute interesa dutenek, edo e-postaz (euskera4@uribekosta.org) ere egin dezakete. Denera, 30 euro ordaindu beharko dituzte txangoengatik; diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileek eta familia ugariak 20 euro. Leku-kopurua mugatua da; eta jakinarazi dutenez, zozketa bidez aukeratuko dute nortzuk joango diren. ◀

info+: 946 579 279 (09:00-14:00)

## Leioako eskulturak ezagutzeko ibilaldia antolatu du zaturako Berbaldun egitasmoak

**B**erbaldun mintzapraktika egitasmoak ekimen berri bat antolatu du zapatu honetarako, otsailak 13; Leioako metro-geltoki ondoko aparkalekutik abiatuta, udalerrian barrena dauden sei eskultura bisitatuko dituzte, 11:30etik aurrera. Jesus Melendez EHUko Arte Ederretako irakasleak emango ditu artelanen gaineko azalpenak, euskaraz. Antolatzaileek azaldu dutenez, helburu bi lortu gura dituzte: «batetik, Leioan daukagun ondarea ezagutzera ematea; eta bestetik, Leioan ere euskaraz egin gura duen jendea dagoela erakusteko batera, euskara udalerriko kaleetara ateratzea». Parte hartzeko ez dago izena eman beharrik. ◀

## Daborduko Sendiren neguko jardueretan izena eman dezakete umek eta aita-amek

**G**etxoko familien artean euskara sustatzeko Sendi egitasmoak prest dauka hurrengo ekintzak. Besteak beste, otsailaren 15ean eta 22an perkusioan jarduteko aukera edukiko dute 6 eta 12 urte arteko umek. Otsailaren 17an, berriz, masaje-tailerra egongo da 5 urtetik gorako umeentzat, gurasoak batera. Bestalde, otsailaren 21ean, domeka, *Amonaren sutondoko ipuinak* txotxongilo-saioa eskainiko dute Behinola konpainiako lagunek; 18:30ean, Algortako Villamonte kultur etxean. Jarduera horiek guztiak doakoak izango dira, baina alde zuzenetik izena eman beharra dago. ◀

info+: 685 732 963 / sendigetxo@yahoo.com





laz egin zuten Book Trailer Lehiaketaren lehenengo edizioa. © KALABAZAN

# Book Trailer Lehiaketa, abian

**Kalabazan Kultur Ekimenak** elkarteak bigarren urtez antolatu du gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko sariketa; liburuak irakurri ostean, trailerra egin beharko dute.

**A**bian da Getxoko Book Trailer Txapelketaren bigarren edizioa, Kalabazan Kultur Ekimenak-ek antolatuta. Lehiaketa, gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko helburuagaz ipini dute martxan, 12 eta 18 urte arteko neska-mutilei zuzenduta. Aukeran ematen diren liburuak bat irakurri, eta horren trailerra egin beharko dute parte hartu gura dutenek; lanak apirilaren 15a baino lehen entregatu beharko dira. Liburuak ezagutarazteko eta

irakurleak erakartzeko, filmetako trailerren antzeko teknikak erabiltzean datza Book Trailer lehiaketa. Lanek minutu inguruko iraupena izaten dute, eta Interneten bidez hedatzen dira. Gehienez hiru pertsonako taldeek parte har dezakete, eta aurrekoetan ez bezala, ez da derrigorrezkoa izango gutxienez taldekide bat Getxon erroldatuta egotea. Horrela, lehiaketa Euskal Herri osora hedatu gura dute.

Lanak bidaltzeko epemuga apirilaren 15a izango da; bideoak Youtuben eskegi, eta lotura e-mailez (sardadilakalabazan@gmail.com) bidali beharra dago. Ondoren, maiatzaren 8an banatuko dituzte sariak.

## Sariak

Irabazleek tableta bana izango dute saritzat; bigarrenak abentura-kamera bana lortuko dute, eta hirugarrenek, eskola-materiala erosteko 50 euro. Halaber, publikoaren saria ere emango dute. Maiatzaren 6ra arte bideoak bozkatzeko aukera egongo da Interneten bidez, eta sari horren irabazleek Lauren Getxo zineetara 8 aldiz sartu ahal izateko bonua lortuko dute.

Martxoan, Kalabazan elkarteak kideek lau trailer eskainiko dituzte Algortako Gauegun gaztelekuan, neska-mutilei liburu-trailer bat egiteko tresnak ezagutarazteko, eta sortu ahal zaizkien zalantzak argitzeko. Datak eta orduak elkartearen webgunean argitaratuko dituzte. ◀

## Sei bertsolari gaztek ALBEk antolatzen duen Abra Saria jokatuko dute barikuan

**A**lgortako Bertsolari Eskolak antolatuta, Abra Sariketaren 15. ekitaldia egingo dute bariku honetan, otsailak 12, Algortako Azebarri kultur gunean. Afarian izena emateko azken eguna hilaren 8a izan zen. Baina afarian parte hartu barik ere, saioaz gozatu ahal izango da. Sarai Robles (Barañain, Nafarroa), Maialen Akizu (Urretxu, Gipuzkoa), Asier Rubio (Luitaondo, Araba), Aitor Servier (Azkaine, Lapurdi) eta Aitor Bizkarra (Abadiño, Bizkaia) bertsolariakaz lehiatu beharko da Paule Loizaga ALBEko kide sopoloztarrak, afaria amaitutakoan. Jone Uria algortarra izango da gai-jartzailea. ◀

info+: [www.albe.eus](http://www.albe.eus)

## Hoy, ultima funcion antzezlan, Sopelan, Ramon Barea eta Itziar Lazkano aktoreakaz

**Z**apatu honetan, otsailak 13, *Hoy, ultima funcion* antzezlan eskainiko dute, Sopelako Kurtzio kultur etxean, Itziar Lazkano eta Ramon Barea aktore ezagunek. Hitzordua 20:00etan izango da; sarrerak 5 euroan salgai daude kultur aretoan bertan, udaletxean eta Sopelaren herritarren arretarako bulegoan, Larrabasterran.

Lazkanok eta Bareak aktore zahar bi antzeztuko dituzte: Niceforo eta Semiramis: bizitza errealean, senar-emaztea; oholtzan, bikotea. Alegiazko azken antzezkizun bat eskainiko dute, benetakoak ez diren pertsoniak agertuko dira bertan. Elkarregaz biziko dute hori dena. ◀



lazko antzeztanik onena izendatu zuen Galiziako Aktoreen Elkarteak. © ILMAQUINARIO TEATRO

## Perplejo antzezlan EAEn ikusgai, lehenengo aldiz

**U**rtarrilaren 22an, Uribe Kostako Bufalo Produkzioak taldeak *Sindrome de Estocolmo* ikuskizuna eskaini ostean, hurrengo hilabeteetan ere antzerkia protagonista izango da Kultur Leioan. Hala, bariku honetan, otsailak 12, Galiziako ilMaquinario Teatrok, EAEn eta gaztelaniaz, *Perplejo* estreinatuko du; ikuskizun komikoa, surrealista eta ausarta da, gizakiarentzat ezinbestekoak diren gaiak jorratzen dituena. «Antzerki barruko antzerkia», Kultur Leioako arduradunek diotenez. IlMaquinario taldeko lagunek ondoko berbakaz definitzen dute obra horren nondik norakoa: «Nor zaren oso ondo dakizula uste duzu, nortzuk diren zure ondoan daudenak, zer den zure inguruan gertatzen dena. Egoera zuk gidatzen duzula uste duzu, zeu zarela zure errealtatea osatzen duzuna, oso ondo

dakizula zelakoa den zure bizitza, zure etxea zeurea dela, eta izen bat, kreditu-txartel bat eta aseguru-poliza bat daukazula. Ziurtasunak dituzula uste duzu, baina mundu honetan ziurtasunak ia utopia dira». Ordu eta erdiko iraupena daukan antzeztan bost golarde jaso zituen iaz Galiziako Aktoreen Elkarteak banatzen dituen Maria Casares Sarietan: ikuskizun, zuzendaritza, argiztapen, jantzi eta bertsiio onenarenak, alegia.

Bariku honetako saioari dagokionez, 20:30ean izango da, Kultur Leioako entzungelan; sarrerak 10 euroan daude salgai.

Bestalde, martxoaren 11n, barikua, Tanttaka antzerki-taldeak *El florido pensil - niñas* eskainiko du; izenburu bereko antzeztan arrakastatsuen bertsiua neskatoen ikuspegitik. Sarrerak 15 euroan egongo dira salgai. ◀

## Oinarriak

### Nork parte har dezake?

Lehiaketa 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei begirakoa da.

### Lanak aurkezteko epea

Epemuga apirilaren 15a izango da.

### Sariak

Sariak maiatzaren 8an banatuko dituzte. Irabazleek tableta bana izango dute sari; bigarrenak, abentura kamera bana; eta hirugarrenek, eskola-materiala erosteko 50 euro.

Publikoaren saria ere egongo da: Lauren Getxo zinemetara 8 aldiz joan ahal izateko bonua. Maiatzaren 6ra arte egongo da bozkatzeko aukera.

### Informazioa eta oinarriak

info+: [www.kalabazan.com](http://www.kalabazan.com)

e-mailez bidaltzeko:

sardadilakalabazan@gmail.com

Bideoak Youtube-n eskegi, eta lotura e-mailez bidali.



## «Guk irabaztekotan, gabarra atera beharko litzateke; tradizioa da»

**Garazi Murua Astorkiza** getxoztarrak 21 urte ditu besterik ez, baina Athleticen lehenengo taldeko atzelari-titularra da. Bederatzi urte gaz hasi zen baloiari ostikadak ematen Renon (Nevadan), handik urtebetera Algortan jarraitu zuen. Lanaren poderioz joan da gorantz, zale zela animatzen zituen jokalaria bezala jokatu arte, eta Euskal Herriko koloreak ere defendatu ditu. Hankak legez, burua ere ondo hornituta dauka. Faduran hartu gaitu, etxean darabilen doinu gipuzkoar gozoagaz.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

### Egundoko lehenengo buelta egin duzue ligako denboraldi honetan.

Bai. Guretzat garrantzitsua izan da dinamika on batean sartzea hasieratik, eta horrek ahalbidetu digu orain gauden lekuan egotea. Ziurrenik, ez genuen espero denboraldi hasieran horren errenta ona edukitzea, bigarren eta hirugarren postuetan dauden Barça eta Atletico Madrilegaz, baina lana ondo egin dugu, eta emaitzak hor daude.

### Partida bat izan ezik, lehenengo bueltako dema denak irabaztea, dozena bat partidatan segidan garaipena lortzea, eta galdu barik mantentzea marka itzela da.

Bai, gu partidaz partida joan gara, gure jokoa eginez. Egia da defentsan talde osoa oso-oso sendo egon gara, eta ate aurrean ere asmatu dugula, eta partida gehienetan aurretik jartzeko aukera izan dugula. Horrek aukera ematen dizu partidak beste era batera planteatzeko.

### Hala ere, hainbat jokalaria lesionatu izan duzue orain arte, zuen taldeko aldagelan.

Bai, oraindik horrela jarraitzen du Iruñe Muruak. Guretzat denbora gehiegi da Iruñe bezalako taldeki bat zelatik kanpo egotea, eta bera bezala beste jokalaria batzuk ere taldetik aparte egon dira; azkenean, horrek gauzak zaildu egiten ditu. Dena den, ematen du taldea, hala eta guztiz ere, aurrera atera dela, eta emaitza onak izaten jarraitzen dugula.

### Liga irabaztea espero duzue?

Jendeak oso zuhurra izan nahi du horrekin; orain dela urte batzuk, ligan aurreneko postuan denboraldi guztian egon eta gero, azkeneko partidaren San Mamesen Barçaren kontra jokatu eta galdu baitzuten, eta liga Barçak irabazi zuen. Hori oso kolpe latza izan zen taldearentzat. Ni ere estadioan nengoen, eta bizi izan nuen egoera hura, beste plano batetik izan bazen ere. Horregatik, taldeak nahiago du lasai joatea, partidaz partida; luzea da, eta talde guztien aurka jokatu behar da.

“ Bizkerre, herriko taldea, horren indartsu ikustea ederra da. Polita da esan ahal izatea: ‘ni hor hasi nintzen’ ”

### Irabaztekotan, gabarra atera beharko litzateke?

Bai, nik uste dut baietz. Kar, kar, kar. Uste dut baietz: hori Athleticen tradizio bat da, eta zergatik gurekin ez da egingo?

### Zelan izan zen zuretzat futbolari ekingo zeniola erabakitzea?

Benetan ez zen erabaki bat izan. Nik txiki-txikitatik

gustuko izan dut futbola; txiki-txikitatik jokatu izan dut. Amerikako Estatu Batuetan hasi nintzen; gero hona etorri, Bizkerrera, eta gauzak pixkanaka pixkanaka etorri zaizkit. Nolabait amestu egiten nituen gauzak, baina ez nituen inoiz helburutzat jotzen, baina gero ailegatzen dira, lana eginez eta zorte pixka batekin, eta hemen gaude.

### Egunero lan handia egin behar duzue jarraitzeko?

Bai, noski. Hori da oinarrizkoena: lanik gabe, bat ez da inora iristen; baina ez futboleko soilik, bizitzako alor guztietan ere.

### Zelan gogoratzen duzue Algortan emandako etapa?

Oso garai polita izan zen. Esan liteke benetan hemen hasi nintzela futbolaritzan gozatzen, Estatu Batuetara bederatzi-hamar urterekin joan bainintzen. Han urtebete bakarrik egin nuen, eta ondoren hemen, Bizkerren, bost urte pasa nituen: aurreneko biak mutilekin jokatzeko, Andoni Manchobasekin eta herriko jende pila batekin. Baina, handik denbora batera, legez jada ezin nuen mutilekin jokatu, eta nesken taldera pasatu nintzen. Oraindik bertan lanean dabilen Xabier Arrieta mutilarekin topatu nintzen, eta hor egin nituen lagun asko eta asko, oraindik mantentzen ditudanak. Adibidez, Maddi Torre ere hemen ibili zen nire adinarekin, eta orain, Athleticen gaude berriro elkarrekin. Horrelako gauzak politak dira, eta herriko taldea horren indartsu ikustea ere ederra da. Polita da esan ahal izatea: «ni hor hasi nintzen».





## Garazi Murua eta futbola

Garazi Murua 2015eko martxoaren 1ean hasi zen Athleticen lehenengo taldean, etxean, Lezaman. Partida hartan, lehoek 6-0 irabazi zioten Collerense klubari. Athleticera AEBetatik heldu zen, East Tennessee State University-ren hamaikakotik, bertako unibertsitatean ikasi baitzuen Ekonomia; gero EHU ikasketak jarraitu zituen.

Ameriketara joan aurretik, Athleticen bigarren taldean jardun zuen bost urte. Lezamara Bizkerretik heldu zen.

Euskal Selektzioagaz, 16 eta 18 urte azpiko kategorietan jokatu du, eta 18 urte azpikoan, Espainiako txapelkunordea izatea lortu zuen 2013an.

Espainiako Selektzioak ere deitu izan du Murua, 16, 17 eta 19 urte azpiko taldeak osatzeko. Bertan ere, saria izan zuen bere ahaleginak, 2014an Europako Txapelketetan zilarrezko domina jantzi baitzuen.

2013an, atzelari postuan, Urrezko Hamaikako kide izendatu zuten Espainiako Futbol Federazioak eta Estatuko kirol-egunkariak. Futbolari gazterik onenen artean ikusten zuten, beraz.

2014an, Muruak esperientzia errepikatu zuen, hamaikakorik onenentarako aukeratu zuten, AEBetako Hegoaldeko konferentzian urteko jokalarik gazterik onena izendatzeaz gainera.

### Berezi egiten zitzazkizun Leioako Emakumeak edo Erandioko Betiko Neskak bezalako taldeen aurkako derbiak?

Bai, baina Leioa denok dakigu talde historikoa dela, eta Betiko Neskak beranduxeago hasi ziren, baina derbi politak izaten genituen, baita Pauldarrak taldekoekin eta beste hainbat talderekin ere. Derbi bi-ziak izaten ziren. Ikus daiteke Bizkaian emakumezkoen futbol-maila oso ona dela.

### Ostera, gutxitan agertzen zarete telebistan eta bestelako komunikabideetan.

Uste dut gauza batzuetan, askotan, sartzen direla diru-kontuak erdi-erditik. Niretzat benetan da borondate kontu bat; batez ere, komunikabide publikoek emakumezkoen eta gizonezkoen kirolei estaldura berdina eman beharko liekete. Baina ez da hala gertatzen, eta galdera hori askotan, ia elkarrizketa guztietan, egiten digute. Uste dut erantzuna denok dakigula zein den, eta egitea besterik ez dago. Guk badakigu jarraitu behar dugula emaitza onak izaten; zoritxarrez, emaitza onak ditugunean bakarrik oroitzen direlako hainbat komunikabide gutaz. Horretan jarraitzen dugu lanean, gure kirolak, bai futbola, bai beste kirol guztiak zabaltzen saiatzen gara.

### Athleticek erreferente bihurtu zaitu, adin txikiko neska-mutilen artean, batez ere. Horrek zelanbaiteko presioa eragin dizu?

Ez. Athleticen zein beste edozein tokitan errespe-

tua izan behar zaio kirol-jarduerari. Hala ere, bai, uste dut ikusgarritasun hori edukitzeak nolabaiteko erantzukizuna suposatzen duela; egia da, baina bizitza guztia pasa dut futboleko ingurune honetan, eta orduan, bai nik, bai nire taldekideek ere naturaltasun osoz hartzen dugu egiteko hau, eta gainera gustatzen zaigu; izan ere, orain dela urte batzuk, gu ginen beste aldean geundenak. Hori ere polita da ikustea: nola alde batetik bestera pasatu naizen, eta orain nire erantzukizuna den beste gaztetxo horien nolabaiteko eredu izatea.

**“ Athletic, Real, Barça... talde horiek ikustea, neskak zirela, kamiseta horiekin, niretzat kristorena izan zen ”**

### Zeintzuk izan ziren zure izarrak?

Nik izar asko eduki ditut; txikitan nesken gorengo mailako futbola aurkitu aurretik, Xabi Alonso asko gustatzen zitzaidan, eta, jakina, gaur egun izar handiak diren guztiak ere, Mascherano ere... Baina gero, apurka-apurka, erdiko atzelari jokatzeko hasi nintzen, jada ikusi nuenean nesken goreneko maila ere bazegoela, hemengo taldeak sortu zirenean, hasi

nintzen, bai, sarriago arreta jartzen haiengan. Adibidez, Irene Paredes Athleticera iritsi zenean, egoeraz jabetu nintzen, baina orokorrean niretzat Athletic, Real, Barça... talde horiek ikustea, neskak zirela, kamiseta horiek zituztela, niretzat jada izan zen kristorena. Amesten nuen egunen batean horrelako talde batean izateko aukera izango nuela.

### Zer esango zenieke kirolean hasi nahian dabilzan neska-mutilei?

Kirolak, lehenik eta behin, disfrutatzeko zer edo zer izan behar duela. Gauza asko ikasten dira, bai pertsona-mailan, bizikidetzan, bai edozein alorretan beharko diren esfortzua, sakrifizioa, pertseberantzia, lana; horri buruz asko ikasten da, baina, batez ere, disfrutatzeko gauza bat izan behar du. Gero gertatuko da gertatu behar duena, baina naturaltasunez iristen da. Inportanteena disfrutatzea da; bestela, ez du merezi.

### Beste zerbait esan gura diezu HIRUKAko irakurleei?

Eskertzen ditudala Getxoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak orokorrean emakumeen kirolaren inguruan duten jarrera positiboa eta ematen dizkiguten babesa eta gogoia. Eta gustatuko litzaidakeela horrela jarraitzea, eta gure hemengo kirolak hazten segitzea. Ea egunen batean, orain baino jokalarik gehiago ikusten ditugun elitean, bai futbolean, bai beste kirolean. Guretzat oso positiboa da, eta asko eskertzen dugu guztion aldeko jarrera. ◀





## Kirolari aitzindariak

Ernesto Diaz kazetari eta argazkilariak egindako eta batutako lanek osatzen dute erakusketa.

«Emakumea eta kirola» argazki- eta objektu-erakusketa ibiltaria ipini dute Plentziako udaletxean. Martxoaren 4ra arte egongo da ikusgai, astegunetan eta goizez.

Zuri-beltza nagusi den erakusketa horretan, Ernesto Diaz kazetari eta argazkilariak egindako eta batutako dozenaka lan topa daitezke: 33 dokumentu grafiko. Horiez gainera, jokorako zenbait tresna eta uniforme batu dituzte. Erakusketa Bilboko Euskal Museoak eta BBK fundazioak ekoitzi eta aton-

du zuten iaz. Horretarako, oinarritzat hartu zuten 2001. urtean Diazek sortu zuena, urte hartan Bilbon antolatutako «Emakumea eta kirola» goiburugaz egindako biltzarra zela-eta.

Bilboko Euskal Museoak honakoak osatu zituen Diazen argazki-dokumentu horiek: alde bate-tik, protagonistek eskuzabaltasunez

utzitako joko-tresna eta uniformeak, eta, bestetik, bi kirolari bizkaitar handiri (Camila Bravo atleta eta Inge Anduiza igerilaria) egindako elkarriketak jasotzen dituen ikus-entzuzkoaren proiektioagaz. Gaur egun, behar beste ez bada ere, ohikoagoa da emakumeak kirol-munduan presentzia izatea, dela arlo profesionalean, dela errendimendu handiko kirolarien artean, dela gimnasioetan, kaleetan edo ikastetxeetan, modu ludikoagoan egiten den kirolari dagokionez. Azken urteotan, kirola gizonen zein emaku-

meen osasunagaz eta ongizateagaz ere lotzen da. Hala ere, orain dela berrogei urte, kirolak ez zuen emakumea gizonaren parekotasun onartzen. Erakusketa garai hartan kokatzen da, hain zuzen ere. Diazen arabera, kirol-jardueren erretratua egin du 1975era arte, gutxi gorabehera; «hau da, nahiko aspaldikoa eta urrunekoa da». Distantzia horrek bermatzen ei du «emakumezkoek egindako kirola lasai-lasai baloratu ahal izatea, nahiz eta emakumeari onartzen zitzaion kirola baino ez izan, beharbada». ◀

## Sokatira-txapelketa hartuko du Erandiok

Zapatu honetan, otsailak 13, Erandioko Altzaga kiroldegiak hartuko du gizonezkoen Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa, 560 kiloko kategorian. Hamar zortzikote lehiatuko dira 17:00etatik aurrera, txapelaren bila. Honako hauek dira taldeak: Abadiño, Sokarri eta Murueta (Bizkaia); Ñapurak A eta B, eta Baiona (Lapurdi); Berriozar eta Beti gazte (Nafarroa Garaia); Ibarra (Gipuzkoa); eta 6 Conceyos (Asturias).

Hamar taldeak multzo bitan banatuko dituzte. Lehenengo ligaxkak Ñapurak A izango du buru, eta bigarrenak, Ibarra. Beste zortzi zortzikoteak



zozketa bidez bideratuko dituzte multzo batera zein bestera. Zozketa, txapelketa-egunean bertan egingo dute, kirolariak pisatu ondoren. Multzo bakoitzeko irabazleak beste multzoaren bigarrenaren aurka jardungo du finalerdietan. Azkenik, finalerdien garai-leek finala jokatuko dute ondoren. ◀

## Getxoztar bik irabazi dute Europako karate-lehia

Xabier Pereda eta Ekaitz Pintado Getxo karate-klubeko kirolariak nagusitu ziren Txipreko Limassol hirian jokatutako Europako Txapelketan, taldekako kata-modalitatean. Bertan, kadeteak, gazteak eta 21 urte azpikoak lehiatu dira aste-akabuan. Urrezko domina pasa den zapatuan lortu zuten getxoztarrek, Antonio Jimena andaluziarragaz batera, Espainiako selekzioaren ordezkari gisa.

Asier Elordui euren maisuaren babesa izan zuten karatekek, bera baita Espainiako selekzionatzailea. Getxoztarrek Turkiako karate-taldeari 5-0 irabazi zioten finalean. Espainiako taldeak arriskatu egin zuen, *unsu* goi-



mailako katarik zailenetako bat erabiliz. Oso ondo landutako *bukai* bat ere egin zuten, era berritzaile batean; arerioak eta epaimahaikideak harritu zituzten horrela. Pereda Munduko txapeldunordea da, eta Euskadiko txapelduna, gazte-mailan. Pintado, berri-z, Euskadiko txapeldunordea da. ◀

**SARTU GURE WEB BERRIAN**  
www.cianoplan.es  
902 103 763

☞ kartelgintza

☞ inprimategia

☞ kopisteria

**cianoplan**  
GLOBAL IMAGING



# Eskubaloi-campusa, antolatuta

**D**aborduko inskriba daitezke Uribeko 8. saskibaloi-campusan 1999 eta 2007 bitartean jaiotako neska-mutilak; Urdulizko eskubaloi-taldeak eta Uribeko eskubaloi-eskolak antolatu dute, udarako. Campusa, Mungiako Larramendi ikastolan eta inguruetan egingo dute. Bertan, gazteek eskubaloian jokatu dute, hondartzan zein pistan, begiraleak zein eliteko jokalariaz. Haiek berba egiteko aukera ere izango dute. Gainera, tailerrak, gaubelak, urjarduerak eta kanpoko jokoak egingo dituzte. Antolatzailerak zabaldu dute, campusaren lehenengo txanda ekainaren 25etik uztailearen 1era izango da, 1999 eta 2005 bitartean jaiotako-

tzat; eta bigarrena, uztailearen 10etik 16ra, 2002 eta 2007 bitartekoentzat. Leku-kopurua mugatua da; inskripzioak heltzen diren ordenan banatuko dira. Hori dela-eta, izen-ematearen fitxa ahalik eta lasterren betetzeko deia egin dute; klubeko webgunean egin daiteke. Elkartek erreserba baieztatu ostean, 375 euroko diru-sarrera egin beharko dute Urdulizko saskibaloi-taldearen kontuan, kirolariaren izen-abizenak zehaztuz. Ostean, izen-ematearen orria eta gurasoen baimena bete, eta klubera bidali beharra dago. Taldeak dena ondo dagoela konfirmatu, eta campuseko argibideak bidaliko ditu posta elektronikoz. ◀

info+: [campusbase@urduliz.com](mailto:campusbase@urduliz.com) / 692 705 161



Campusean mantenu-osoko ostaturia izango dute gazteek. © URDULIZ ESKUBALOI TALDEA



**Bizkeneska kadeteek txapela** lortu dute Bizkaiko ligan. Domekan, irabazi egin zuten, Bilboko Berriotxoa kluba 0-4 gainditu ostean Txurdinagako Ibarsusi futbol-zelaian. Gotzon Legarretak gidatzen dituen kadeteek 18tik 14 partida irabazi dituzte. © BIZKERRE

## Bizkaiko urrezko intsignia jasokoduz Azkuetak

**J**ose Ignacio Azkuetari urrezko intsignia emango dio Bizkaiko Futbol Federazioak, «bere klubari eta Bizkaiko futbolari egindako ekarpen luzeagatik». Azkueta Lagun Artea futbol-eskolako presidente eta Leioa Kirol Elkarteko zuzendaritzako kidea da. Leioa Kirol Elkartean ibili da Azkueta taldearen berpizkundetik, 1974tik. Lehenengo urtean Leioako presidentek kargu utzi zuenean, berak hartu zuen ardura. 17 urtean jardun zuen; hortik aurrera hainbat arduratan lagundu du. 73 urte gaz, Lagun Artea futbol-eskola gidatzen du. ◀

## Plentziako eta Gorlizko kirol-elkarteen bilerak

**B**ariku honetan, hilak 12, Plentziako eta Gorlizko kirol-elkarrekin batzar orokorrak egingo dituzte. Plentziarrek Errotabarrin egingo dute ezohiko deialdia, 19:00etan, zuzendaritza-batzordea hautatzeko egutegia finkatu eta hauteskunde batzordea izendatzeko. Gorliztarrek, berriz, ohiko Batzar Orokorra izango dute, ordu berean, Urezarantza futbol-zelaian. Bertan, artezkaritza-batzordeak 2014-2015eko memoria eta balantzea aurkeztuko ditu, eta 2015-2016ko aurrerontua. Horrez gainera, klubak hauteskunde deialdia egingo du. ◀

# EGIN ZAITEZ hirukalaguna!

...abantaila ugariz gozatzeko zozketak astero, astekaria eguazteno zure e-mailean...

Urtean, 35 eurotik aurrera

info.+: 94 491 13 37 edo [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

## HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

### 1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

### 2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

Bazkide Erabiltsailea

Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

Urtean 35€  Urtean \_\_\_\_\_ €

Izena

\_\_\_\_\_ NA \_\_\_\_\_

Abizenak

\_\_\_\_\_

Helbidea

\_\_\_\_\_

Posta kodea

\_\_\_\_\_

Herria

\_\_\_\_\_

Herrialdea

\_\_\_\_\_

Telefonoa

\_\_\_\_\_

E-posta

\_\_\_\_\_

Kontu korrante zenbakia

\_\_\_\_\_

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKA emandako datuak fixategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitate helburuetarako. Bereziki erabiltzailearen aurreko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak mezu idatzi: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)





Itsasertzetik

**GUILLERMO  
MALAINA MARTINEZ**  
Irakaslea

## Kirolari profesionalak bailiran


**E**uria ari zuen neguko egun hodeitsu eta hotz hartan. Urdulizetik Mungiarako norabidean gindoa-zen bizikletaz, zeharo bustita eta hoztuta. Butroiko gazteluaren ondoan dagoen baselizaren parera heltzean, tropel hartako kide bati bertan gelditzea otu zitzaion geroago atertuko zuelako itxaropenaz. Ermitaren arkupeak gure babesleku bilakatu ziren, baita gure algaren eszenatoki ere. Zelan ez! 16 urte edo genituen, kirolari sanoak ginen, umorea gure indarra zen eta bizikleta, gure pasioa.

Momentu hura, benetan, gozatzekoa izango zatekeen nire lagun baten aita kotxez bertatik igaro izan ez balitz. Gizonaren atsekaberako, semea euritan entrenatzen aurkitu barik, arkupean babestuta topatu zuen. Antza, hura tragedia zen! Suminduta, semeari hurbildu eta biraoka agindu zion bizikleta gainean jartzeko eta errepidera bueltatzeko. Euritan eta hoztuta entrenatzera, kosta ala kosta. Laguna ez zen, ordea, bakarrik joan. Bere ondoan izan gintuen, pedalei eraginez, kilometroz kilometro.

Urteak joan eta urteak etorri, oraindik ere aita haren jarrera ulertu ezinean nabil. Aita hura bezalako beste guraso batzuk topatu ditut txirrindularitzarekin zerikusirik ez duten beste kirol batzuetan, futbol edo saskibalo partidetan, kasu. Zenbait alditan ikusi ditut seme-alabei errieta egiten edota epailei birao aipaezinak botaka. Edozelan ere, jasanezinak izan dira eszena horiek guztiak.

Ez dakit zenbaterainokoa den halako gurasoek pairatzen duten frustrazioaren zama. Ez dakit zergatik tratatzen dituzten seme-alabak kirolari profesionalak bailiran. Arrazoa arrazoi, eskerrak guraso gehienak horrelakoak ez direla eta kirolaren esentzia ulertu egiten dutela. ◀

# Erasorako prest, boga!



Arkoteko emakumeak arerio sendoa dira Kaikurentzat. © BERMEO URDAIBAI ARRAUN ELKARTEA

**B**izkaiko Batelen Liga hasi berterik ez da egin, baina estropada biren ostean eta beste zortziren faltan, Ibaizabalgo urak ederto baliatu zituzten Arkote klubeko emakumezko gazteek eta seniorrek. Sestaoko jardunaldi bietan bigarren sailkatu ziren plentziarrak, bertako Kaiku ahalguztidunaren atzean. Gainera, lehenengo deman 25 segundo galdu ostean, pasa den zapatuan 3 segundora jaitsi zuten galdutako denbora, sestaoarrak baino arinago irten da. Lutxanari dagokionez, Tximinoko eskifaiak hirugarren postua lortu zuen otsailaren 6ko emakumezkoen lehian, urtarilaren 23ko estropadan parte hartu ez arren.

Gizonezko kadeteetan ere, bigarren lekua lortu zuten Arkoteko batelariak zapatuan, lehenengo jardunaldiko laugarren postua gaindituta. Hala ere, Bermeok tinko jarraitzen du sailkapen horren buru. Areetako Raspaseko arraunlariak, ordea, lehenengo postuetatik asago ibili ziren. ◀

## Saria ekarriko du Atxazperen izena zabaltzeak

**A**txazpe Astrabuduko mendi-taldeak bazkideak diruz lagunduko ditu, klubaren eta Erandioren izenean mendiko kirol-probetan parte hartzen badute. Neurri horren bidez, elkarteak mendi-kirola sustatu gura du bazkideen artean. Klubak proba bakoitzeko izen-ematearen %50 ordainduko du, gehienez jota 30 euro, proba bakoitzeko. Bazkide bakoitzari emango dion urteko laguntza-kopuru osoa ez da 100 euro baino handiagoa izango. Proban parte hartu ostean emango dira laguntzak, onartu den 1.000 euroko aurrekontua agortu ez bada. ◀

## Bizikletazale bila dabil Hondarmendi

**S**ei urtetik gorako neska-mutil uribekostarrei bizikletaz gozatzeko aukera eman gura die Gorlizen sortutako Hondarmendi txirrindularitzaklubak. Dirua irabazteko asmo bako elkarte horren kideak horretarako bazten dira, barikuetan 18:00etan, eta domeketan goizeko 10:00etan; bi gorpilen gainean inguruetatik txangoak egin, eta lasterketarako prestatzen dira. Entrenamenduak mendian eta trafiko bako errepideetan egiten dituzte. Interesa duten gurasoek posta elektronikora idatz dezakete. ◀

info+: [hondarmendi.txirrindularitza@gmail.com](mailto:hondarmendi.txirrindularitza@gmail.com)

## Erandioko Herri Kroserako izen-ematea, zabalik

**D**aborduko Erandioko Atletismo Eskolak martxan ipini ditu Erandioko Herri Krosaren lehenengo prestatetak. Hala, izen-ematea zabaldu dute elkartearen webgunean eta Erandioko kiroldegian. Herri Krosaren 27. edizioa martxoaren 6an egingo dute. Lasterketak 10:30ean hasiko dira; eskolako umeakaz. Hainbat kategorietakoek parte hartu ostean, 11:45ean familientzako lasterketa izango da, eta ordu erdi beranduago, maila absolutukoa. Irteera eta helmuga Tartanga kalean egongo dira, kiroldegiaren aurrean. ◀

izen-ematea: [Atletaerandio.com](http://Atletaerandio.com)

# I

## Iñaki Bixitegia

MONTBLANC, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Tellexe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Zabala 9  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84



## Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

**Dougie MacLean-en kontzerturako 5 sarrera bikoitz ditugu**

Otsailak 21, domeka, 20:00; BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Dougie MacLean Eskoziako kantautore ezagunaren zuzenkorako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 16a baino lehen, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337

## Zorion-agurrak

5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

[publi@hiruka.eus](mailto:publi@hiruka.eus)  
94 491 13 37



**JORJE**  
BARRIKA  
Martikoenatarron partez

Zorionak, artefakto! Barrikako lasaitasunetik, Algortako estresera ia beti irribarretsu etortzeagatik, eskerrik asko! Zorionsu izan!



**JABI**  
LASARTE-ALGORTA  
Familia eta lagunaren partez

Zorionak, Jabi! Danak etxean aske ospatu arte, mila animo eta besarkada bero! Algortatik osasuna, maitasuna eta askatasuna! Presoak Sorterrira!



**INES**  
ERROMO  
Portu zaharreko auzokideen partez

Otsailaren 16an gure super-artista 30. urtemugara helduko da! Ez galdu egunero oparitzen diguzun irribarre eder hori, zoragarria zara!

## Zozketa Expobaby & Kids

azokarako 4 sarrera bikoitz dauzkagu. Gura dituzu?

Bada bidali zure izen-abizenak eta harremanetarako bide bat «azokarako sarrerak» goiburuagaz, hona: [publi@hiruka.eus](mailto:publi@hiruka.eus). Edo deitu: 944 911 337



Otsailaren 19tik 21era bitartean egingo da BECen Expobaby & Kids azokaren 2. edizioa. Laster guraso izango diren eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten aita-amei begirako azokan, sektoreak hamaika produktu eta zerbitzuren eskaintza zabala aurkezten du: erditze aurretiko beharrei erantzuteko zerbitzu, haurren mantenu, zaintza, hezkuntza, aisialdi eta abarrei dagozkienak. Horrez gainera, gaiari lotutako berbaldi eta tailer interesgarriez gozatzeko aukera ere egongo da. [info+: www.expobaby.com](http://www.expobaby.com)

## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Inurri baten moduan lan eta lan ibili ostean, ia ez zenuen aukerarik izan mozorroa erakusteko. Lasai, aste honetan ere aratusteak dira hainbat herritan.




**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Kuadrilla osoaren mozorroa egin behar izateagatik orain dino arneguka? Inauteriak behin baino ez dira! Jaietara arte ez diezu behar gehiago egingo.



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Pedanteria beharrezkoa da zutaz barre egiteko, neguan hartaz mozorrotu eta hibernatuta ez zaudelako. Ez utzi adarra jotzen!



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Obrak egin beharko dituzue etxean. Kontuz ibili! Horrelakoak badakizu zelan hasten diren, baina inoiz ez da asmatzen noiz amaituko diren!



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ez galdetu zure laguna zelan mozorrotuko den. Kaktus bat ikusiz gero, ezagutu ez arren, jakingo duzu barruan nor dagoen.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Inauterietan, giroa itzela izan zen; neska-mutilen hamaika argazki atera zenituen. Zelako lana daukazu orain hori dena antolatuta eta kopiak bidaltzeko!



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Jantzi hura ederra zen; alboak ondo ematen zuten zapatakaz; hirugarrena begikoa zeneukan... eta laugarrena eroan behar izan zenuen?



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gero eta gehiago kostatzen zaizu karta-jokoetarako arerioak aurkitzea. Agian, otsoa baino akabatua dago zure ohitura.



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Oraindino zein mozorro aukeratu ez dakizula? Arazo hori ez da berria zuretzat. Zeozer egin beharko zenuke zure irudimena lantzeko.



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Auzokideak hura esan zizunean, atoa baietz erantzun zenion. Senidea hurbildu, eta hari ere baietz, zalantza barik. Elkarren kontrakoa zioten biek!



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Mozorro-txapelketa irabazi ez duzulako, kexaka? Zabor-poltsa handi bati kolore askotako adabakiak itsastea agian ez zen hain karamelu polita.



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Nori bururatu ote zitzaion mozorro-garaia otsaila izatea? Zure mozorro labur eta arinagaz, doministikua emango duzu aste osoa.





# Mendi-larreak

## Abereek sortutako «funtzio anitzeko» eremuak

**Mendiko artzaintza desagertzeak** «ondorio ekologiko eta sozio-ekonomikoak» eragingo lituzkeela ondorioztatu du EHUko eta Neiker-Teknialiako ikerlari-talde batek.



IKER RINCON MORENO

Jakin badakigu mendiko artzaintzak eragina duela ekonomian, kulturen eta jendartearen. Hala da, eta, gainera, jarduera hori funtsezkoa da larreak bere horretan mantendu ahal izateko, «balio ekologiko handiko ondare naturalak baitira». Horixe baieztatu du EHUko eta Neiker-Teknialiako ikerlari-talde batek. Azaldu dutenez, gaur egun atlantikoko mendietan, Euskal Herrian ere, gero eta gehiago murrizten ari da artzaintzaren jarduera; horrek aldaketa handiak eragiten ditu lurzoruko konposizio begetal eta mikrobianoan, eta, ondorioz, «galera bat dakar horrek dibertsitate floristikoa eta larrearen kalitate nutritiboan, CO<sub>2</sub>-aren isurien igoeragaz batera». «Horrek guztiak kate-ondorio ugari izango du, arlo sozio-ekonomikoan ere nabaritu direnak», iragarri dute ikerlariak. Horixe da, hain zuzen ere, ikerketa-taldearen ondorioetako bat. Talde hori, besteak beste, EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Sailko Arantza Aldezabal eta Iñaki Odriozolak eta Neiker-Teknialiako Lur Moragues algortarrak eta Iker Mijangosek osatu dute.

Euskal Herrian nabarmena da nekazaritza-eremuek duten presentzia, eta artzaintzak eta abeltzaintzak garrantzi handia dute bertoko gizartearen. Urdulizen bizi den Arantza Aldezabal EHUko ikerlari pasaitarrak dioenez, aspalditik gurean egiten den jarduera horrek, «ezin estimatuzko ondare ekologi-

ko eta kulturala sortu du: ohitura, bizimodu eta aniztasunez beteriko ondarea». Horrez gainera, eremu horiek «funtzio anitzekoak» direla uste du, haragi, esne eta gazta bezalako elikagai tradizionalak ekoizten direlako horiei esker, eta «hiriguneetan bizi garenontzat aisialdirako eta gozamenerako parajeak ere badirelako, baita kirolari eta mendizaleentzat ere». Hori dela-eta, artzaintza desagertuz gero, «ziurrenik

### Artzain-lanbidearen «gogortasunak» eta bizi duten «prekarietateak» eragin dute jarduera murriztea

epe luzera», aipatutako onura eta funtzio horietako asko galduko liriteke. Zoritxarrez, jarduera ekonomiko hori murrizten dabilela diote azken urteetan egindako azterketek. «Kontua konplexua da, eta ez dago arrazoi bakar bat, arrazoi askoren konbinazio bat dela esango nuke», uste du Aldezabalek. Azaltzen duenez, alde batetik artzain-lanbidearen «gogortasuna» kontuan hartu beharrekoa litzateke. Sakrifizio handiko lanbidea da, eta belaunaldi gazteek ez dute horrelako bizimodurik gura, «ondorioz, betidanik artzaintza eta abeltzaintzatik bizi izan diren familietan,

ez dago jarraipenik, eta seme-alabek, gehienetan, baseritik alde egiten dute». Bestetik, PAC deritzon Nekazaritza Politika Komunitarioa dago, Europa mailako legedia; nekazaritza-gune eta abeltzaintzarako diru-laguntzak zelan banatu behar dituzten ezartzen du, eta kudeaketa «oso konplexua» du. Ikerlariaren arabera, gaur egun eremu horiei loturiko hainbat jarduera diru-laguntza horien menpekoak dira, «hots, modu prekarioan mantentzen dira». Azkenik, merkatuak ere ez duela laguntzen salatu du Aldezabalek, esne-litroaren prezioen gorabeherak, barbarako. Horrenbestez, artzain eta abeltzainek modu duin batean aurrera egiteko, zailtasun handiak dituztela salatu du ikerlariak. Hala, horiek guztiek eta beste hainbat arrazoiaren bat egiteak abeltzaintzaren jardueraren murrizketa progresiboa eragiten dute. EAEko Kantauri isurialdeko mendikateetan, Aralar eta Aizkorri inguruetan bereziki, artzaintzak ez du behar-kada handirik izan, eta nabarmena da eremu horietan artzaintzak duen eragina. Hala ere, Aldezabalek jakinarazi duenez, Gorbeia eta Arabako mendietan ganaduaren murrizpena «nabarmenagoa» izan da. Nafarroako egoera, oster, «hain ongi» ez duela eza-gutzen aitortzen du ikerlariak; hala ere, bere ustean, artaldean kopurua murriztu egin da Urbasa-Andia eta Erronkari inguruetan. «Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago abereen errolden serie tenporal luzeak lortzea oso zaila dela, eta, gainera, erregistratzen den aberea mendiko larreetara igo den jakitea ia ezinezkoa izan da orain arte».

### Orain dela hamar urte abiatutako ikerketa

Zer gertatuko litzateke gure mendiko landetan larratze-jarduera erabat desagertuko balitz? Galdera ho-





Iñaki Odriozola, Maddi Arzak, Nere Amaia Laskurain, Arantza Aldezabal eta Ana Etxeberria. ©EHU

rri erantzuteko, EHUko eta Neiker-Teknialiako ikerlari-taldeak esperimentu bat diseinatu, eta orain dela 10 urte martxan jarri zuten. Horretarako, 2005ean, 50 x 50 metroko itxuru iraunkor bi eraiki zituzten Enirio-Aralarko Mankomunitatean (Gipuzkoa), «larratze-eza» simulatzeko asmoz. Lehenengoa Oiduin (860 metroko altueran) eraiki zuten, eta bigarrena, Alotzan (ia 1.300 metroko altueran).

Itxitura horiekaz, azken hamar urtean artzaintzaren sasoiaren, maiatzetik azarora bitartean, inguruko belarjaleak (behiak, zaldiak eta ardiak) larre eremu horretara ez hurbiltzea lortu dute. Modu horretan, urtez urte neurketa sistematikoak egin dituzte, eta konposizio floristikoa eta lurzoruko aldagai ugari neurtu dituzte itxituaren barruko aldean eta kanpoko aldean. Hala, kanpoko (larratze-gunea) eta barruko (larratzerik ez dagoen gunea) alderatu ostean, gaur egun aldaketa handiak jazotzen direla frogatu dute.

#### Aldaketak, landaretzan eta lurzoruan

Lurzoruan aldagai abiotikoak aztertu dituzte (testura, pH-a, hezetasuna eta tenperatura), eta lurazpian, 10 zentimetroko sakoneran, mikroorganismoen jardueraren eta dibertsitate genetikoaren gertatutako aldaketak ere ikertu dituzte. Dibertsitate genetikoaren azterteak izaera berritzailea eman dio ikerketari. Arantza Aldezabal ikerlariak azaldu duenez, «gure hipotesia zen, airean edo landaretzan ikus zitezkeen aldaketek eragina izan zezaketela lurzoruko mikroorganismoen garapenean, jardueran eta dibertsitate funtzional eta genetikoan». Hori egiaztatzeko, osteran, lurzoruko mikrobiotaren aldagai funtzionalak (jardueraren entzimatikoa, dibertsitate funtzionala) eta genetikoak aztertu

zituzten; genetikoetan, bakterioen eta onddoen identifikaziorako teknika molekularrak erabili zituzten.

Lortutako emaitzak aztertu ondoren, artzaintzaren jardueraren bertan behera uzteak lurzoruko mikroorganismoetan aldaketak eragin dituela ondorioztatu dute. Landaredian, gramineoak ugari dira nabarmenki, «lehiakorrenak direlako halako ingurune-baldintzetan (argia lortzeko lehian dira, batez ere), eta hain lehiakorrek ez diren hainbat espezie desagertu egin dira». Aldezabalek dioenez, espezieen ordezkatze-prozesu hori erritmo desberdinetan gertatzen da: itxiera zenbat eta altitude baxuagoan egon, hainbat azkarrago jazotzen dira aldaketak. «Sistema benetan konplexua da, eta elkarrekintzaz beteta dago». Bestetik, larratze barik, belarra metatuz doa, eta gero eta

### Artzaintzaren jardueraren alde batera uzteak aldaketak eragin ditu lurzoruko mikroorganismoetan, besteak beste

lodiagoa den geruza osatuz; «isolatzaile bikaina da». Ondorioz, geruza horrek lurzoruko tenperaturari eragiten dio, eta ia konstante mantentzen du: 11 eta 13 gradu artean uda aldean. Aldi berean, mikroorganismoen jardueraren murriztea eragiten du horrek.

Lurzoruan, berriz, horren ezaugarri fisiko kimikoetan aldaketak eman dira: trinkotze-maila arindu egin da itxituak abereek ez dituztelako zapaltzen, «eta horrek lurzoruko uraren garraioan eraginak ditu», Aldezabalen berbetan; «hala ere, eragin horiek oso konplexuak dira, eta lurzoruko ehunduraren eta ur-

te-sasoiaren menpekoak dira». Hala, larratze-ezaren ondorioz, mikroorganismoek jaitsi egin dute euren jardueraren entzimatikoa eta biomasa mikrobiana, eta biomasa unitate bakoitzeko CO<sub>2</sub> isuriak gehitu dira.

#### Ondorioak, sozio-ekonomian?

Artzaintzaren balizko desagertpenak ekologian eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak egiaztatuta, artzaintza-sistema osoagaz lotutako ikuspegi zabalago batez osatu gura du orain ikerketa-taldeak ezagutza hori, arlo sozio-ekonomikoa ere aztertuz. Aldezabalek iragarri duenez, oraindik ez dute datu nahikorik ondorio irmoak ateratzeko, baina horretan dihardute. Hala ere, aurreratu duenez, larratzearen eraginpean hazten den belarrak kalitate hobea du; hortaz, «esan genezake sistema berez elikatzen dela: abereek belarraren kalitatea hobetzen dute, eta kalitate hobeko belar horrek onurak ematen dizkio aberearen jarduerari (ekoizpenari) eta ongizateari». Gainera, belarraren kalitateak eragin zuzena du abereen esne-ekoizpenean eta esnearen kalitatean, eta ondorioz, esne horregaz egindako produktuen kalitatean ere bai. «Horrek, halaber, ondorio sozio-ekonomikoa izango dituela pentsarazten digu, eta horiek kuantifikatzea dugu helburu datozen bi urtean», azaldu du ikerlariak.

Horretarako, jardueraren inguruan dauden arlo guztiak integratu, eta era globalean jorratuko dituzte, agertoki sozio-ekonomiko ezberdinak simulatu ahal izateko. Hala, diziplina ezberdinetako EHUko hiru azpialde (ekologoak, biokimikariak eta ingurune-ekonomistak) eta Neiker-Teknialiako bi azpialde (lurzoruan osasunean eta animali ekoizpenean dihardutenak) dabiltza elkarlanean. ◀



## Lehen/Orain

### Telletxe (Algorta), 1973




GETXOKO LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

## Erretratua

### Maite Ikarán Souville

Yogaren ozeanoan murgildu den biologo algortarra.

info+: [www.maiteikaran.com](http://www.maiteikaran.com)



**Itsas dortoken gaineko** doktoretza-tesia idazteko eskakizunek hurreratu zuten yogara. Bere ikerketa-ibilaldiak islatzen dituen argazki-erakusketa ipini du Villamonten.

**O**tsailaren 16tik martxoaren 2ra arte ikus daiteke Maite Ikarán Souvilleren (Algorta, 1978) «Natura eta Bidaia Argazkiak» erakusketa. Urte asko eman ditu atzerrian ikasten, lanean eta bizitzan. Biologia ikasi zuen EHU; amaitzean, nazioarteko kooperazio-beka bat lortu eta Costa Ricara joan zen 3 hilerako. «Han oihanaren deia sentitu nuen, karreraren denok amestutako biologo jardunean ibiltzeko aukera izan nuen; oihaneko fauna eta floraren inbentarioa egiten... Eta hiru hilak hiru urte bihurtu ziren!». Itsas dortoken inguruko proiektu batean murgildu zen, «gutziz liluratuta». Itzuli, horretan jarduteko finantziario bila hasi, eta Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-beka bat lortu zuen: «Gabonen (Afrika), *laud* dortokak ikertzea aukeratu nuen, Las Palmaseko unibertsitateko talde batez». Ikaranen Afrikako egonaldiak 5 urte iraun zuen, «oso bizia izan zen, kanpamenduko bizimodua, elektrizitate

eta ur barik... bizitza basatia!». Azken urtean, tesia idazteari eutsi beharrak eskatzen zizkion diziplina eta kontzentrazioa lortzeko, yoga izan zuen bidela-gun. «Egun erdiz tesiagaz, bestea yoga praktikatzan» bizi izan zen 3 urtez Malagako mendietan (Andaluzia). Tesia aurkeztu eta orduan barneratu zen yogan,

**“ Costa Rica, Gabon, India, Thailandia, Hawaii... Orbitan eman ditut 11 urte ”**

orduan abiatu zuen Asiako aldia: India, Thailandia eta Hawaiiin (Ozeania) ere ibili zen. 2012an itzuli zen herrira, eta gaur egun yoga-eskolak ematen ditu Zipiriñen (Sopela), Algortan, Barrikan eta Bilbon. Argi dio, «jendeak ondorioztatzen du biologia alboratu dudala... zer da yoga, ez bada norbanakoaren, izatearen ikerketa eta zientzia?!».

#### Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua